



Sopelako Aitxu! euskarataldeak agur esan du, hamar urteko ibilbide oparoa bete ostean. ▶22-23



Sorginen Alabak talde feminista sortu dute Plentzian, udan jazotako eraso matxistei aurre egin guran. ▶8

hiruka

Uribe Kostako astekaria




74. zenbakia

2016ko
urriaren 27tik
azaroaren 3ra arte

«Ez nuen inondik inora espero Euskadi Saria jasotzea»

Mixelko Uranga Alvarez idazle berangoztarrak Euskarazko Saiakerako Euskadi Saria irabazi du *Tartaroa. Mina, boterea eta egia* liburua dela-eta. ▶16-17



KULTURA URIBE KOSTA

Getxoarte Aretoa, prest

Praktika Garaikideen Aretoa Areetako Xake Plazan egongo da azaroaren 4a eta 6a bitartean, goizeko 11:00etatik gauera arte. ▶11



XI. STOCK EUSKADI AZAROAK 4,5,6
11:00 - 21:00
WWW.STOCKEUSKADI.COM

-%80 KO BEHERAPENAK
ZOKETA 3000€

ETXEOAK
MODA ETA BITXIGINTZA
EGURKITARAKO BETAURREKIDAK
OSAGARRIAK
KIROLA
OSASUNA ETA ASKOZ GEHAGO...

NIKE, adidas, CALVIN KLEIN, CARBONETTI, CARRERA, BLU/SOHO, REYBON, LEVI'S, WAGOTAL

Erandioko Berbalagun egitasmoa martxan dago. Euskara praktikatu gura dutenek daborduko izena eman dezakete bertan. ▶5

Errigora ekimeneko otzarak eskatzeko epea zabalik dago; aurten, berritasun legez, saski bi eskainiko dituzte. ▶10

Bizkaiko bertsolariek Leioan jokatu dute Txapelketako hurrengo kanporaketa, zapatuan, Kultur Leioan. ▶11

ADI! HURRENGO HIRUKA
ASTEKARIA **BARIKUAN**,
AZAROAREN 4an,
PLAZARATUKO DA.

Andra Mariko Bentari erabilera emateko prozesua abian da

«BentaraNoa» ekimena martxan ipini du Getxoko Udalak. Horregaz, proposamenak batu gura ditu, Benta eraikinari zer-zelako erabilera eman erabakitzeko.



Proposamenak urtarrilera arte bidali daitezke.

Andra Mari auzoko Benta eraikinari erabilera emateko proposamenak jaso eta erabakitzeko «BentaraNoa» prozesua martxan ipini du Udalak. Aipatutako eraikina ez da ezertarako erabiltzen gaur egun; hori dela-eta, auzoko eragile eta norbanakoen iritzia batuko dituzte urtarrilera arte. Hala, jasotako informazioa abiapuntuztat hartuta, Benta eraikinari erabilera berri bat emateko proposamena egingo du Udalak, «Getxoren gaur egungo eta etorkizuneko errealitateagaz bat etorriko dena», azaldu dutenez. Ospakizunetarako, aisialdiaz gozatzeko eta erabakiak hartzeko lekua izan da Benta, tradizioz, Auzoko bizilagunentzat. Komunikazio, Partaidetza eta Gardentasuneko zinegotzi Amaia Agirrek aipatu duenez, «gaur arte bizirik iraun duen baliabidea da, aipa-

tutako eginkizun biak bete dituen; halere, orain bere etorkizunaz berriro pentsat beharrean gaude, Getxoko Andra Mari auzoan azken hamarkadetan gertatutako aldaketak hala esutzen baikaitu, neurri handi batean». Elkarrizketa kolektiborako ariketa bultzatu gura du Udalak, egitasmo horren bitartez. Hala, udalerriko bizilagunak, lekuaren historiari lottutakoak, elkarteak, gizarte- zein enpresa-eragileak eta abarrak gonbidatu ditu Udalak, jakintza partekatu dezaten, aurrez aurre edo Internet bidez. Topaketa eta elkarrizketa horiek antolatuko dituzte hilabete honetan hasi 2017ko urtarrilera bitartean. Bilerak horiek guztiek arrasto zabala eta gardena utziko dute, webgunean zein sare sozialetan, elkarrizketak jarraipena izan dezan horretarako berariaz sortutako eremu digitaallean. Ekimenean parte hartu gura dutenek horretarako aukera izango dute posta elektronikoz, edo sare sozialetan #BentaraNoa traola erabiliz. ◀

info+: www.getxo.eus / bentaraNoa@getxo.eus

Zure inguruan nor da euskararen alde, egunero, zerbait egiten duena?
(Zure inguruan = zure lagun-taldean, zure kirol- edo kultur- elkartean, familian...)

Bidali hautagaitzak azaroaren 4a baino lehen
euskara@getxo.eus

Getxo
bizi eragile

Argia Ereiten
VII. edizioa

Getxoko Euskara Saria 2016



Lehendabiziko Fluxudun Gunea da inguru hori.

«Arrisku-guneetan betelanak» egin dituztela salatu dute

Gobelak Kaltetutako Auzokideen Elkarteak salatu duenez, «Algortako Iturribarri ingurua urbanizatzeke lanak egiten dabilen BYCAM enpresak baimendu bako betelanak egin ditu». Gainera, «lanok Lehendabiziko Fluxudun Gunean egiten ari dira, eta halako guneetan betetzeak egitea ez da legezkoa», deitoratu dute. Jakinarazi dutenez, gune horiek URA Uraren Euskal Agentziak egindako A.R.P.S.I.

mapetan mugatuta daude. Hori dela-eta, auzokideen elkarteak salaketa ipini eta betetze lan horiek «urgenteki» geldiaraztea eskatu diote Udalari. Gogoratu dutenez, gune horretan uriolak jazo dira; horrela segituz gero, uraldiak errepikatzeke arriskua dagoela ere salatu dute: «edo politika urbanistikoa gelditzen dugu, edo arriskuan jarraituko dugu». Udalak ez du erantzunik eman salaketa horren harira. ◀



Txoritokitik

IÑAKI
ZARRAOGA ZABALA
Getxoko alkate ohia

BBCK gure Erkidegoko hezkuntzaz

Hezabideetan oso oihartzun eskasa izan duen iritzi interesgarri bat irakurri nuen eta hona eka- rri nahi izan dut. Iritziaren egilea BBC News-eko Hezkuntza korres- pentsala da, Sean Coughian, eta idaztiaren izenburua «Euskaldun- nek beren burua berreraiki dute hezkuntzaren indarrak». Perio- dista honek dituen datuen arabera Eusko Jaurlaritzak oso inber- tsio handia ezarri du hezkuntzan eta European Danimarkak eta Austriak bakarrik dituzte ikas- le bakoitzeko gastu handiagoak Euskadiko Autonomi Erkidegoak baino. Honen ondorioz, beti ka- zetariaren arabera, populazioa- ren ia %48k graduako titulua edo balio berekoa du, portzenta- je hau Finlandia eta Norvegia ematen diren zenbakien parekoa izanik. Eta niretzat datu harriga- rriagoa den beste hau: ikerketan eta garapenean lanean ari di- ren pertsona-kopuruei dagokie- nez, gure erkidegokoa Europako lehen postuan dago, Finlandia eta Danimarkarekin parekatuta. Egoera hauek eta beste batzuek ikusita, Coughian-ek dio hezkun- tza arloan gure Erkidegoak Es- kandinaviakoa dela ematen due- la eta ez Europa hegoaldekoa.

Jakina, euskara eta bera au- rrera ateratzeko eta normaltzeko egin den ahalegina ere azpima- rratzen da artikuluari. Eta eskola kontzertatuen presentziak, esko- la publikoarekin batera eta neurri berdintsuetan, Euskadin dagoen enpresa-izpiritu edo ekimen-izpi- ritu adierazlea da bere ustez.

Herrialde hau Europako lu- rralde aberatsenetakoa dela, bere gainean Luxenburgo eta Austria baino beste inor ez baita- go European.

Amaitzeko Andreas Schleider OCDEko hezkuntza zuzendaria- ren hitz hauek dakartza: «Euskal Herria hezkuntzako inbertitzaile handia da eta egitasmoaren zati bat euskal hizkuntzaren sustape- nean egin da».

Getxo

Babeserako eskubidea, minutu bateko bideoan

Unesco Etxeak *Eman minutu bateko babesa* izeneko ikus-entzunezkoen lehiaketa antolatu du.

Urtero legez, Unesco Etxeak martxan ipini du *Eman mi- nutu bateko babesa* izeneko ikus-entzunezkoen lehiaketa. Nazioarteko ekimen horretarako, Getxoko Udalaren laguntza izan du, besteak beste. Aurtengoa, babes es- kubidearen gainekoa izango da. Hala, aske ibiltzeko, bizi-lekua aukeratzeko eta jazarpenik jasanez gero, edozein herrialdetan babesa bilatzeko eskubi- deari buruzko film laburrak aurkez- tu behar izango dituzte parte-hartzaileek. Lan horiek minutu bateko iraun beharko dute, eta edozein hizkuntza- tan aurkeztu ahal izango da. Grabazio- lanetarako edozein gailu erabili ahal izango da, barbarako telefono mugikorrak edo sakelako telefonoak, *table- tak*, *webcamak*, argazki-kamerak zein



Lanak otsailaren 1era arte aurkeztu ahal izango dira. © IKASBIDE IKASTETXEA

bideo-kamera digitalak. Lehiaketaren zazpigarren edizioa izango da aurtengoa, eta horretan parte hartu gura dutenek datorren urteko otsailaren 1era arte bidali ahal izango dituzte euren lanak. Interesa dutenek lehiaketaren baldintzak edo oinarriak ezagutzeko webgunera jo dezakete.

Lehiaketaren helburua da erres- petuan oinarritzen den eta giza esku- bideak defendatzen dituen jendartea

lortzen laguntzea, arreta berezia es- kainiz pertsona guztiok aske ibiltzeko eta asiloa lortzeko eskubidea defendatu- tuko duen jendarte kritiko eta solida- rio bat eraikitzeko. Epaimahaia zazpi adituk osatuko dute, eta parte-hartzen duten lanik onenen artean lau sari ba- natuko dituzte, guztira. ◀

info+: www.dame1minutode.org
www.dame1minutode.wordpress.com
www.unescoetxea.org

MUSIKETAN
2016
2017

SALA
Gran Vía: 19-21
20:00h

ALICE FRANCIS
Urriak 30 octubre

MARK OLSON & RUBEN POZO
Azaroak 20 noviembre

LAURA COX BAND
Abenduak 4 diciembre

ELLIOTT MURPHY
Urtarrilak 15 enero

bbk Bizkaia Bilbao

Indabadan 300 lagun izango dira gutxienez, San Nikolas plazan

Den-dena dago prest Indabadaren XVII. ediziorako. Daborduko 300 txartel saldu dituzte eta 50 gehiago ipini dituzte salmentan, 10+1 euroan, Hator tabernan. Aurretik 8+1 euroan eros zitezkeen, baina astelehenetik aurrera prezioa 10+1 eurora igo dute, jende ohitzeko asmoz ahalik eta lasterren txartelak erostera. Euro gehigarri hori bideratuko dute iaz ezarritako 600 euroko isuna ordaintzeko. Hala, ohi den legez, 11:00etan emango diote hasiera jaialdiari, dianagaz. Ordu bete beranduago, txotxa zabalduko dute San Nikolas plazan eta, bertaratuko diren denek dantza egiteko aukera izango dute 13:00etan. Gerrialdea astindu gura ez dutenek, oster, herri-azokaz gozatu ahal izango dute. Ondoren, 14:00etan, herri-bazkaria hasiko dute, menua: produktu ekologikoez egindako entsalada eta indabak. Horren ostean, iaz hain arrakastatsua izan zen bingo musikatua egingo dute, eta 20:00-20:30ak aldera abiatuko dute poteoa, herriko hainbat gaztek osatutako elektrotxara- ranga-talde berriaren doinura. ◀

Getxo

Txikia plazaren izena aldatuko duela iragarri du alkateak

EAEko Auzitegi

Nagusiaren sententzia ez duela errekurrituko jakinarazi du Udalak.

Imanol Landa alkateak jakinarazi du ez duela errekurrituko Algortako Txikia plazaren izenaren gaineko sententzia. EAEko Auzitegi Nagusiak plazari izena aldatzeko agintzen duen epaia eman du, horren izenaren aldaketa bultzatuko du, alkateak adierazi duenez. Hala, 1980ko maiatzaren 17an hartutako akordioa baliogabetuta geldituko da; horretan, Udalbatzak onartu zuen aipatutako plazari Txikia deitzea, lehenago Viviendas de Vizcaya (jendearentzat, Las Uves) izenagaz ezaguna zena. Alkateak azaldu duenez, izen berria inguruko toponimoren bategaz lotutakoa edo emakume batena izango



Polizia espainolak hil zuen Txikia ETAKidearen omenez ipini zioten izena plazari.

da. PPK positiboki baloratu du ez errekurritzeko erabakia, baina deitoratu du plazaren izen-aldaketa epai horren ondorioz gertatu izana. Bestalde, plazaren izena defendatzeko eskatu dio alkate-

ri EH Bilduk, «frankismoaren biktimen duintasuna defendatzeko bidea eta aukerak badaude, baita Udalak modu demokratikoan plaza izendatzeko hartu zuen erabakiari eusteko ere». ◀

UAO berritzeko lan-taldeari uko egin diote EH Bildu eta GUK taldeek

Udal Araudi Organikoa (UAO) berritzeko sortu zen lan-taldean parte-hartzeari uztea erabaki dute EH Bildu eta GUK Getxo taldeek. Koalizio abertzaleak azaldu duenez, «bilerari horietatik ateratako ondorioa argia da: EAJk ez du sekula adostasunik bilatu herritarren parte-hartze erreala ahalbidetzeko». Bere aldetik, UAO lan-taldean proposamenak barnertzeko dauden zailtasunak azaleratu ditu GUKek; gainera, uste du «jarrera hertsia horren ondorio zuzena dela herritarren partaidetza errealarari atekoa». Talde politiko biek nabarmendu dute lanak hasi zirenetik «adostasunari bide emateko borondatea izan dutela, baina denbora joan ahala, egiaztatu dutela hori ez zela EAJren asmoa eta bere partaidetza eredu PPrene ereduarengandik oso gertu dagoela». ◀

info +: www.hiruka.eus

Galea-Azkorriko ekosistema berreskuratu gura du Udalak

Gorrontatxe hondartza eta Galea lurmuturraren artean dauden kostako txilardien ekosistema hobetu eta babesteko plan pilotua martxan ipiniko du Udalak, udagoienean. Pertsonen eraginagatik eta higadura-prozesuengatik oso hondatuta dagoen ekosistema da, eta European lehenak da halakoak jagotea eta berreskuratzea. Kostaldeko txilardien balioa nabarmentzeko eta berreskuratzeke egitasmo horrek eremu bixtea aurreikusten du, behin-behinean; pertsonen joan-etorriaren eraginez ekosistema hori hondatzen dabilelako inguru horietan. Azkorriko aparkalekuaren ondoan dagoen gunean zein

Alpenarri puntaren inguruan, Tunel Bokako senadiaren alboan, bietan, esklusio-eremu bana mugarrirako dute, higatutako guneak indartzeko: txilar landareak (*Erica vagans*) landatuko dituzte, landarediak alor horiek modu naturalean birkoloniza ditzan. Hesien eta ingurumen-efektuen jarraipena ekarriko du horrek. «Proiektua iragan maiatzean abiatu genuen boluntarioentzako ingurumen-jardunaldi batekin, eta haren helburua kontserbazioa eta partaidetza soziala bateratzea da, proposatutako helburuak ahalik eta modu onenean lortzeko ezinbesteko faktorea baita», aipatu du José Luis Landa Ingurumen zinegotziak. ◀

Itsasertzeko hondoa garbitu dute, Portu Zaharrean

Marefundum elkarteko urpeka-Mari talde batek Algortako Portu Zaharreko inguruko itsas hondoa garbitu du. Ekintza horren helburua izan da ikasleak zein jendea sentsibilizatzeko pertsonen jarduerak kostaldean dituzten ondorioen inguruan. Modu berean, ekintza horren bitartez, jendea hezi eta arduratu gura izan dute itsasertzaren aberastasunaz eta hauskortasunaz, hondakinen jatorriaz (%80 bat kontinentean sortua) eta haien iraupenaz, eta ekologiarri lotutako herritarren jokabideaz. Horrez gainera, hondakinek kostaldeetan duten eragina zein den erakutsi gura izan dute bai kualitatiboki zein kuantitatiboki. ◀

Epaiketara heltzeko prest daudela ohartarazi dute

Joan den urteko urriaren 10ean, Algortatik Hanka «indar okupatzaileen kontrako» mugimenduak Alde Hemendik Eguna antolatu zuen, urriaren 12an ospatzen diren Hispanitatearen Eguna eta Guardia Zibilaren eguna salatzen asmoz. Urtebete igaro da ordutik, eta egun horren harira ehuna euroko isunak ordaintzea ezarri diete Algortako 10 bat gazteri, Guardia Zibilaren kontrako oihuak egin zituztela egotzita. Horietako askok zigorraren kontrako hainbat helegite aurkeztu dituzte, eta guztietan erantzun bera jaso dute. Hala ere, behar izatekotan epaiketara helduko direla ohartarazi dute, «egoera guztia salatzeko». ◀

AIXERROTA BHI IKASTETXEA
 Batxillergoak: • Teknologikoa • Natur eta Osasun Zientziak • Giza eta Gizarte Zientziak
 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) B eta D ereduak
 Zereginak ikasteko gela (A eta D ereduak)
 Informazio gehiago: www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86

Egunkariak
 prentsa eta aldizkariak
 Algortako etorbidea, 78 ALGORTA • 94 491 27 34
 Gura izanex gero, etxera eroango dizugu egunkaria!

GARAIZAR
 BARRIKUNTZAK
 Eraikuntza zerbitzu integralak
 Illeta, 1. 48991 ALGORTA
 94 430 52 43 • 607 952 977
regaraizar@gmail.com • www.garaizar.biz

aldai
 Tapiztegia
 Dekorazioa
 Erakusketa
 Tailerrak
 Basagoiti etorbidea 32
 48990 Algorta
 94 460 90 31

Erandoio



Ikasturte osoan egongo da zabalik izen-ematea.

Berbalagunak, mihia astintzera

Ikasturte berriagaz batera, Erandioko Berbalagun egitasmoa mar txan dago, Berbots euskaltzaleen topaguneak antolatuta. Leire Hernandez dinamizatzaileak gogora ekarri duenez, «astean behin, ordubetez, euskara egunerokotasunean praktikatzeko aukera» ematen du proiektu honek. Hala, interesdunek «Erandioko edozein auzotan euskara praktikatu ahal dute», Berbalagun egitasmoan parte hartuz. Horren funtsa da «euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertso-

nak ohiturarik ez dutenakaz elkartzea. Edozeinek parte har dezake: euskaldun zaharrek, euskaltegiak ikasle ohiek, irakasleek...», Hernandezek azaldu duenez. Modu horretan, ikasitako euskara, norberaren «inguruan praktikan ipintzeko aukera» eskaintzen diete parte-hartzaileei, «euskaldunak ezagutzeko eta euskaldun sarea» nor bere auzoan osatzeko aukera emanez. Daborduko izena eman daiteke. ◀

izen-ematea: 667 995 716 (tel. edo whatsapp)
/berbalagunerandio@gmail.com

Hilerrirako zerbitzu berezia ipiniko du Erandiobusak

Erandiobus-zerbitzuak ibilbide eta ordutegi bereziak eskainiko ditu datorren martitzenean, azaroaren 1ean, Domu Santuagaz bat eginez. Egun horretan, ohitura da kanposantuetara joan eta hildakoak akorduan izan eta horiei gorazarre egitea. Zeregin hori errazteko zerbitzu berezia eskainiko du Erandiobusak, hain zuzen ere. Erandioko Udalak jakinarazi duenez, goizeko 09:00etatik 14:00etara, orduero autobusa irtengo da As-trabuduko Iturribengoa zeharbidetik San Agustin hilerriraino, Altzagako Legazpi kaleko geralekutik pasatuz. Itzultzeko bidaiak ere orduero izango



© ERANDIOKO UDALA

dira, 09:30etik 14:30era. Gero eta jende gutxiago badoa ere, oraindino milaka dira azaroaren 1ean hilerrietara hurre-ratzen diren uribekostarrak. ◀

Ontzigintza ezagutzeko txangoa egingo dute zapatuan

Zapatu honetan, hilak 29, Murueta Zontziolen instalazioak ezagutzeko aukera egongo da. Ekimena Erandioko Udalak eta Murueta enpresak antolatu dute, Ondarearen Europako Jardu-naldien barruan. Bisita gidatua gaztelaniaz izango da, goizeko 11:30ean udaletxetik abiatuta. Muruetan Erandioko ontzigintzaren historiaz jabetu

ahal izango dira bertaratuko direnak. Celaya edo Ruíz de Velasco Erandioko ontziola zaharretatik irten ziren eskola-ontzi batzuen nondik norakoak eta zelan eraiki ziren azalduko dituzte. *Guayas*, *Cuathemoc* eta *Simón Bolívar* ontziak, adibidez, Ekuador, Mexiko eta Venezuelara bidali zituzten. ◀

izen-ematea: 944 890 140

LUBERRI
OBRAK ETA ZERBITZUAK

• Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
• Inausketak
• Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A behe, B12 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 - 94 467 17 13
luberry@luberry.biz
www.luberry.biz

txakoli
mota gane TX
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34
(Akarlanda parkea) Golerri-Erandio
94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com

hiruka
zaitez!

Urtean
35€
baino ez

Trukean:
zozketak,
sariak ia astero,
astekaria eguazteno...

berbalaguna.
KONTURATZERAKO
EUSKARAZ.

EMAN IZENA!

Ahaztutako hizkuntza freskatzeko, jende berria ezagutzeko, ilobarekin hitz egiteko. Beste batzuei hori guztia egiten laguntzeko. Nahi duzunerako, baina gozatuz.

Izen-emate epea: Urte osoan zehar
Kontaktua: berbalagunerandio@gmail.com

Antolatzaileak: Babesleak:



Gardentasuna eskatu du GES Enekuriko Lan Batzordeak

Global Energy System (GES) nazio-arteko enpresak Enekurin duen lantegiko Lan Batzordeak gardentasuna eta soldatak bermatzeko eskatu ditu, enpresaren salmenta-prozesuan. Eskatera egin die 3i inbertsio-taldeari, GESen zuzendaritzari, balizko eroslea den Cristian Lay industria-taldeari eta Eusko Jaurlaritzari. Eguzki- eta haize-parkeak eraiki eta mantentzen dituen enpresak uztailean iragarri zuen enplegu-erregulazio txosten bat. Horren arabera, Enekuriko egoitza sozialean 200 beharginetatik 96 langilek lana galduko lukete. Estatu-mailan ere beste 531 langile kaleratuko lituzkete. ◀

Leioa

Herritarren partaidetza aztergai

Egindako azterlanaren arabera, 10 puntuetatik 5,6ko emaitza ipini diote galdetutako leioaztarrek, Udalak dauzkan parte-hartzearen bide ezberdinei.



Politikari, udal-teknikari, elkarteetako ordezkari eta herritarrek elkarrizketatu dituzte; denera, 687.

Txakolibier jaiaren laugarren edizioa antolatuko dute

Bizkaiko Txakolinaren Jatorrizko Dedeuturaren Kontseilu Arautzailearen egoitzak, Mendibile Jauregiak, Txakolibier Jaiaren laugarren edizioa egingo du urriaren 29tik azaroaren 1era bitartean. Batetik, Alemaniako zein Euskal Herriko produktu gastronomikoak dastatzeko aukera emango du ospakizunak. Bestetik, erakusketak, dastaketak, umeentzako jolasak zein ikuskizunak, herri-kirolak, herri-musika eta pop-rock kontzertuak egongo dira Mendibilen. Aurtengo Txakolibier Jaia abiatzeko brindisa zapatuan egingo dute, 14:00etan; bertan egongo dira Udalaren, Aldundiaren eta Kontseilu Arautzailearen ordezkariak. ◀

Arimen Gauda egingo dute urriaren 31n, Boulevard inguruan

Mugi Leioako Gazteak elkarteak Arimen Gauda antolatu du bigarren aldiz, Udalgaz eta Merkatarien Elkarteagaz elkarlanean; astelehenan, urriak 31, egingo dute, Boulevard eta Estartetxe kaleetan. Hala, goizean, umeentzako tailerrak egongo dira, 11:30etik aurrera. Arrastian, berriz, euskal dantzetan jarduteko aukera edukiko dute herritar denek, 18:00etatik aurrera. Azkenik, Burrumba elektrotxaragang alaitutako pintxo-poteoak zabalduko du gaueko egitaraua, 19:30ean. Ondoren, txokolate-jana, Orritz-Iskidin pertsonaia mitologikoaren ikuskizuna, faroltxoak askatzea eta Galkarren erromeria egongo dira. ◀

Emozioen kudeaketa positiboa landuko dute, azarotik aurrera

Auto-ezagutza transformatzaileria, garapena eta hobekuntza pertsonala dira Leioako Udalaren Hezkuntza eta Herritarren Partaidetza Sailak antolatutako ikastaroaren ezaugarri nagusiak; azaroaren 11tik ekainaren 17ra egingo dute, barikuetan, 18:00etatik 21:00etara, edo zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara. Denera, 14 egun, 42 ordu, izango dira, euskaraz edo gaztelaniaz. Ikastaroak

100 euroko salneurria dauka, ordainketa bitan egitekoa. Talde bakoitzean 20 lagunek izena eman ahal izango dute. Matrikula Hezkuntza eta Herritarren Partaidetza Sailean (Kultur Leioa, laugarren solairua) egin behar izango dute interesa dutenek, 09:00etatik 14:00etara, leku-kopurua bete arte edo ikastaroa hasi baino astebete lehenagorarte. ◀

info+: 946 072 576 / udalhezkuntza@leioa.net

Udal-gaietan herritarrek zelako parte-hartzea daukaten jakiteko azterlana egin berri dute agintari leioaztarrek. Batetik, 16 politikari edo udal-teknikari elkarrizketatu dituzte, eta Leioako 13 elkarte «esanguratsuenetako» ordezkariak ere bai. Horrez gainera, inkestak egin dituzte; 658 herritarrei egin diete galdeketa denera, kalean zein Internet bidez.

Azterlanaren arabera, galdetutako politikari, udal-teknikari, elkarteetako arduradun eta herritarren %95ak baino gehiagok uste du bizilagunek udal-gaietan parte hartzea «beharrezkoa edo guztiz beharrezkoa» dela. Modu berean, ia bi herenek diote partaidetza-maila «baxua edo oso baxua» dela. Bestalde, Udalak aitortu duenez, «udal batzarraren berri» badaukate elkarrizketatutako lagunek, «baina ez dituzte parte hartzeko dauden bestelako bi-

deak ezagutzen». Hala, parte-hartzearen bide horien inguruan «informazio nahikoa ez» daukatela uste du horien erdiak. Hala ere, parte-hartze prozesuren batean sartu diren gehienek «positibotzat» jotzen dute esperientzia, agintari leioaztarren esanetan. Gainera, galdetutako lagunen %67ak adierazi ei du udal-gaietan parte hartu gura lukeela. Partaidetza bultzatzeko proposamenak ere jaso dituzte: informazio-kopurua eta gardentasun-maila areagotzea, galdeketa eta erreferendumak egitea, eta agintariak zintzoagoak izatea, besteak beste.

Galdetutako leioztarrek «parte-hartze ikasgaiari» ipini dioten nota 5,6 da, 10 puntuetatik.

Daborduko, Leioako Udalaren gardentasun eta parte-hartzearen webgunean daude ikusgai azterlanaren emaitzak; eta laburpena ere bai. ◀

info+: www.leioazabalik.leioa.net

Auzoen arteko autobus-linea gehiago ipini gura ditu Udalak

Handituz doan udalerrria da Leioa; hori dela-eta, auzo ezberdinak lotzen dituzten autobus-lineak berrantolatzeko azterketa agindu zuen Udalak. Daborduko emaitzak badauzkate eta gainontzeko alderdiei aurkeztu dizkiete, dagoen batzordearen bilkuran. Iban Rodriguez alkateordeak azaldu duenez, «herri-autobusak Avanzadatik ezkerre dauden auzoak baino ez ditu hartzen»; San Bartolome, Leioandi eta Artatzagane bezalako auzune berrietara heldu gura dute orain. Proposatutako berrikuntzen arabera, noranzko biko ibilbide berri bat ipiniko lukete. Hala, oraingo norabide bakarreko li-



Auzoen arteko autobusa. © LEIOAKO UDALA

neari gehituta, hiru autobus martxan egongo lirarteke uneoro; eta Pinueta auzora ere helduko litzateke garraioa. Orain, euren proposamenak aurkezteko aukera edukiko dute alderdi politikoek, azaroaren hasierara arte. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

Sopela



Atxabiribil hondartzaren goiko aldean, Ingesta inguruan dago skate-pista.

Skate-parkearen inguruan, zalantzak

Lar arin ez ete duten inauguratu eta Ingesta inguruan integratzea zein azken horren egokitzapena egingo ete den zalantzak agertu ditu EH Bilduk.

EH Bilduko zinegotzi Ander Morenok *Sopela.net* agerkarian argitaratutako artikuluan adierazi du skate-parkearen proiektua «azkenean gauzatu izana poztekoa» bada ere, «gauzak hobeto egin daitezkeela». Gogora ekarri du «skate-parkeak zenbait aldaketa izan dituela, jatorrizko egitasmoari dagokionez»: *DownHillz* jaitziera eta harmailak zein jesarleku batzuk jasotzen zituen. Morenok dioenez, horiek ez egiteko «arrazoi teknikoak daudela argudiatu dute, eremuan hobeto integra dadin skate-parkea». Kontua da skate-parkearen proiektua berori lekutzen den Ingesta ingurua berreskuratzeko egitasmoagaz

batera sortu zela, eta bien bat egiteak aisialdirako esparru zabalago bat lekarkeela. Egitasmo hori 2015ean Sopelako Udaleko buru zen EH Bilduren gobernu-taldeak aurkeztu zuen, eta, gaur egun, hori gauzatzeko ardura Udaleko EAJren gobernu-taldeak dauka. Koalizioaren zinegotziaren esanetan, «beste behin ere, atzeratuta doaz». Horrez gainera, Morenoren ustez skate-parkearen inaugurazioa «neurri batean, lar arin» egin dute, «aldaketen ostean, egin duten bakarra skate-parkearen bainuontziak direlako; ez dute Ingestan integratu, hau da, ez dute ingurua egokitu». Zalantza agertu du EH Bildukoak: «paperontziak» ipiniko ete dituzten eta «atseden hartzeko lekuren bat» egongo ete den galdetzen du, «harmailak eta aulkiak proiektutik kendu ostean». Egitasmoa gauzatzeko Jaurilaritzaren dirulaguntza jaso zela, eta horrek ezarritako epean egingo ete duten ere duda du Morenok. Gaur egun gobernu-taldeak laster emango du bere iritzia. ◀

Zazpigarren Putxera Eguna, Pepetxinen omenez, prest!

Indaba-usaina barreiatuko da Sopelako kaleetan azaroko lehenengo aste-akabuan. *Pepetxini* gorazarre egiteko asmoz, zazpigarrenez antolatuko dute Putxera Eguna azaroaren 5ean, zapatua. Goizeko 09:00etatik 11:00etara bitartean egongo da izena emateko aukera, eta doakoa izango da. Lapikoan edo putxeran prestatu beharko dituzte parte-hartzaileek indabak, lehiaketa egiten den lekuan bertan, hau da, udaletxearen aurreko plazan. Gainera, indaba gorriak erabili beharko dituzte, edo garbantzu zein txitxiro itxurako indaba pintoa. Horiei laguntzeko lau osagai beharrezkoak izango dira, gutxienez: txorizoa, odolostea edo buzkantza, urdaia eta saiheskia; gehiago ere erabil daitezke.

Den-denak prest egon beharko du 13:00etan, beranduenez; izan ere, 12:00etatik 13:00etara bitartean aur-



Izen-ematea 09:00etatik 11:00etara izango da.

keztu ahal izango dira putxerak. Eguraldi txarra eginez gero, antolatzaileek estalperen bat eskainiko dute lasai bazkaldu ahal izateko. Ostera, mahaiak, aulkiak, platerak eta abarrek parte-hartzaileek eroan beharko dituzte. Sariei dagokionez, garaikurra, ikatza eta diru-saria irabaziko dituzte lehenengo hamarrek, eta sopoloztarrentzako sari bereziak egongo dira. ◀

Por cierto, se llama François antzezlan, barikuan, Kurtzion

Periplo antzerki-taldeak *Por cierto, se llama François* lan berria eskainiko du Kurtzio kultur etxean. Emanaldia bariku honetan izango da, urriak 28, arrastiko 08:00etan. Antzerki-talde bizkaitarrak berak sortu eta zuzendu du obra, eta aspalditik elkar ikusten ez duten hiru lagun topaketa da abiapuntua. Parisen bizi da eurretako bat, aktorea dena, eta Donostiako Zinemaldira egingo duen bisita aitzakiatzat hartuta batuko dira lagun zaharrak. Sortzaileek azaldu dutenez «topaketek eragiten dute iragana birbizitzea, orainaz berba egitea eta etorkizunaz pentsatzea». Ikuskizuneko sarrerak 3 euroan daude salgai. ◀

info+: www.periploteatro.es

Gizon bat ikertzen dabilta, edukiontzia erretzea leporatuta

Udalerriko zakarrontzi biri su eman zieten, urri hasieran. Sopelako Udaltzaingoko zenbait agente eta suhiltzaile lekura hurreratu ziren, eta gertakarien egilea aurkitzeko ikerketa fasea abiatu zuten, lekuko testigantzak jasoz. Horren atestatua Getxoko Guardia Epaitegira bidali zuten. Dirudienez, Sopelako 48 urteko bizilagun bat ikertzen dabilta, zakarrontzien ustezko su-emailea delakoan. Hala jakinarazi du Sopelako Udalak, eta udalerriko zenbait kaletako materia organikoa eta birziklatzeko batzeko erabiltzen diren edukiontzia erretzea leporatzen diote. Zigor-kodeak urtebete eta 3 urte bitarteko kartzela-zigorra aurreikusten du halako delituengatik. ◀

Olentzerori eta Mari Domingiri ondoetorria prestatzen hasiko dira

A benduaren 24ko iluntzerako denak prest egon beharko du; horrenbestez, egin beharreko lan guztiak lehenago antolatzen hasteko beharra dago, eguna heltzean Olentzerori eta Mari Domingiri merezi duten harrera egiteko. Hala, datorren azaroaren 2an, eguaztena, arrastiko 07:00etan, Kurtzio kultur etxean ipini du lehenengo hitzordua Olentzeroren eta Mari Domingiren Batzordeak. ◀

hau herkuintzatik
ander deuna batxilergoa

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus

Irunbat
gasp energia

Loiola Ander Deuna, 74
48600 SOPELA
946 764 625
www.irunbat.net

MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

XURRUT

Pizza Bar · Musika zuzenean

946 77 13 89 · GORLIZ · www.xurrut.com



Sarritik Borobiara

PAUL
BILBAO SARRIA
Kontseiluko Idazkari Nagusia

Aizue,
eta Uribe Kostan
egingo al dugu?

utxo Egiak ekimen interesgarri bati ekin zion 2015eko ekainean. Horrenbeste aldiz han eta hemen entzuten dugun *euskahaldundu* aditz berriari esanahi erreala eman zion, alegia, eguneroko *euskahalduntze* hori nola egikaritu daitekeen erakutsi zuen.

Bizi den lekuko hizkuntza hegemonikoa galdu edo ahaztu zuen hilabetez, kasu honetan, gaztelania. Bilbon hilabetez gaztelaniaz hitz egin gabe bizi izan zen. Berak zioenez, euskalduna izatea eraikuntza kontziente bat delako, hautu kontziente bat, eta hilabetez hautu hori egin zuen.

Idea horretan oinarrituz ahalduntze pertsonaletik ahalduntze kolektibora egin zuten Donostiako Egia auzoko hainbat herritarrek *euskaraz bizi nahi dugulako* ekimenaren bidez. Horrela, aste batez herritar andanak euskaraz bizitzeko hautua egin zuen, bai eta praktikara eman ere. Añorgan ere antzeko dinamika ekin zioten. Hernanin euskara ari du lelopean erronka gisa planteatu dute hamarnaka herritarrek euskaraz modu integratuean bizitzeko urratsa egitea. Agurainen, modu xumeagoan egin zuten, 75 orduz euskaraz biziz. Eta, azkena, Lasarte aurreko zapatuan hasi zuten euskararen maratonia: 40 egun euskaraz.

Egia esan, praktika eredu-garriak iruditzen zaizkit, eta etorkizunari begira ahalduntze indibidual zein kolektiboa horrelako jardunetan kokatu behar ditugula iruditzen zait. Boteretzen, dagokigun tokia hartzen eta exijitzen hasi behar dugu. Lorea Agirrek azken Korrikaren amaierako mezuan argi esan zuen: *Bagara nor, kontua ekitea da, ez gara menpeko perpausa, menpeko izateari utzi, eta ahalduntzea da kontua. Euskaldun gisa ahalduntzea, herritar gisa ahalduntzeko. Ekingo al diogu horrelako ahalduntze ariketaren bati Uribe Kostan?*

Plentzia

«Patriarkatua errotik suntsitzera gatoz»

Sorginen Alabak talde feminista udan Plentzian jazotako eraso matxistei erantzuna emateko sortu zen, taldeko kide Denis Rey Ormazak azaldu duenez.



Sorginen Alabak talde feministaren nondik norakoak azaltzeko Denis Rey Ormazagaz berba egin dugu.

IKER RINCON MORENO ▶

Joan den astean, Sorginen Alabak talde feminista aurkeztu zuten Plentzian. Kideek azaldu zuten, taldea azkenaldian jazotako eraso matxistei erantzuna emateko beharrragatik sortu zuten. Egitura barik funtzionatzen dute eta adin ezberdinetako emakumeek parte hartzen dute.

Zer da Sorginen Alaba taldea?

Autodefentsa feministan saretzen dabilen talde feminista bat da. Udan egondako eraso matxistei aurre egiteko beharra ikusi genuen; hasiera batean lagun arteko sorrera izan zen, ize-nik gabe, autodefentsa oinarri hartuta, pare bat ekintza egiteko. Hortik aurrera, apurka-apurka jendea hurbiltzen hasi da eta taldea osatzeko eskatu zigiten. Hala, jende ezberdina batzen hasi ginen, nora gindoazen eta zer nahi genuen jakiteko. Izena jarri diogu, baina oraindik ez da eraketa formal bat.

Zeintzuk dira zuen lan-ildoak?

Hasiera batean eraso matxistei aurre egiteko sortu ginen, baina badakigu hori ez dela arazo bakarra. Gaur egungo gizartean emakumeok gutxiago kobratzen dugu lan bera egiteagatik, etxeko lanak gure esku daude oraindik, erailketa matxistak egunero ematen dira... Hori dela-eta, gizartea astindu nahi dugu, patriarkatua errotik suntsitzeko. Arlo guztiei heldu nahi diegu.

Joan den astean egin zenuten aurkezpen ofiziala, zer harrera egin dizuete?

Bai, oso positiboa izan zen. Neska gazte pilo hurbildu ziren, eta horrek erakusten digu garai bateko borroka feminista bere fruituak ematen ari dela eta kontzientzia hartzen ari garela. Halere, mutilen falta igarri genuen, borroka feministan mutilak ere kontzientziatu behar ditugula uste baitugu.

Zein da gaur egun feminismoak bizi duen egoera gure inguruan?

Orain arte gizartea lotan egon da, ematen du eraso matxista gehiago daudela, baina ez da egia. Feminismoari esker ezagutzera eman da zer den askatasuna; hori dela-eta, salaketa gehiago daude. Salatzerara ausartu gara, hori argitara ematera, eta horregatik entzuten da gehiago, baina ez gehiago ematen direlako, betidanik eman baitira erasoak. Borroka feministak bere fruituak eman ditu, kontzientzia hartu dugu eta horren beharraz jabetu gara.

Zer behar dugu parekidetasunerako?

Hezkuntzan badago zeregina. Mutilak eta neskak hezi behar dira, ez bakarrik neskak euren burua babestera. Mutilei emakumeak errespetatu behar dituztela erakutsi behar zaie.

Noiz eta non batzen zarete?

Sorginen Alabak talde heterogeneoa da, adin ezberdineko emakumeak batzen gara, astelehenetan, 19:00etatik aurrera, Danontzat gaztetxean. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.saiaszgetaria.com



Plentzia eta Urduliz

Garraio-bideak hobetuz

Isuskitza auzoko bizilagunak sinadurak batzen hasi dira Urdulizko ospitalera joateko autobusa eskatzeko.

Plentziako Isuskitza auzoko bizilagunak sinadurak batzen hasi dira auzune horretatik Urdulizko ospitaleraino autobus-zerbitzua eskatzeko. Foru Aldundiak Bizkaibusen geralekuak eta bideak ezartzeko ikerketa egin e du, eta horretatik kanpo gelditu direla salatu dute Isuskitzakoek. Halere, jakinarazi dutenez, eskaera hori Plentziako Udaltzako onartuta dauka, eta Aldundiari jakinarazi zion. Hori dela-eta, eginbeharrari lotu eta sinadurak jasotzen hasi dira *Change.org* plataformaren bidez. Bere aldetik, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio Depar-



Sinadurak batzen dabiltza *Change.org* plataformaren bidez.

tamenduak jakinarazi du auzo horretako bizilagunek metroz joan beharko dutela ospitalera, «Plentziako gainontzeko guztiak bezala».

Bestalde, Bizkaiko Garraio Partzuergoak jakinarazi duenez, Urduliz

eta Plentzia arteko kilometro bat baino gehiagoko trenbidea egokituko du, segurtasuna hobetze aldera. Hala, ibilbide horren hiru bihurgune hobetuko dituzte. Modu berean, Plentziako geralekuaren 2. bideko nasa berrituko du. ◀

Gorliz

Martxa nordikoan trebatzeko hainbat saio antolatu dituzte

Udako eguraldi ona atzean utzi arren, udagoienak ere giro eta paisaia koloretsu eta paregabeak utz ditzake mendian ibiltzeko. Kontuak hala, mendiaz gozatzeko egundoko aukerak izan daitezke Gorlizen antolatuko dituzten martxa nordikoak, doako tailerrak dira. Lehenengoa urriaren 8an egin zuten, hasiberrientzat; halere, azaroan eta abenduan beste hiru saio prestatuko dituzte.

Lehenengoa azaroaren 6an, domekan, izango da, 10:00etatik 12:30era. Hori kirol honetan eskarmentua dutenentzat izango da, eta «ibilbide gorria» egingo dute. Hasiberriek, berriz, azaroaren 20an izango dute gozatzeko aukera, 10:00etatik 12:00etara, eta «ibilbide berdea» eta «urdira» egingo dute. Abenduaren 4an, ostera, «ibilbide beltza» egingo dute, aurreratuentzat, 10:00etatik 13:00etara. ◀

info+: www.gorliz.eu

Berango

Arkeologia-inpaktu txostenik egin ez dutela uste dute

Berangoko merkatalgune berria izango dena itxura hartzen doa. Apurka-apurka, hondeamakinak bere lanak egiten dabiltza, azpiegitura eraikitzeko. Behar horietan, makinek *tafoniak* zituen «egundoko» hareharri estratu bertikal bat bota dutela ohartarazi du Edestiaurre Arkeologi Elkarteak. Horrez gainera, jakinarazi duenez, baliteke garrantzia duten askotariko material arkeologiko bota izana hondakindegira. Hori guztia dela-eta, arkeologoek uste dute «arduradunek ez dutela arkeologia-inpaktu txostenik egin aipatutako lanak aurrera eramateko orduan», eta «oso larria»



Tafoni duen hareharria bota dute. © EDESTIAURRE

deritze horri; metro gutxira, Gobela ibaiaren bestaldean, Landaluze eta Urtxubi aztarnategiak ditugula kontutan hartuta», deitoratu dute. ◀

Barrika

Game of thronesen grabazioak eragina izango ei du turistikoki

Game of thrones telesailko protagonistak Barrikan utzitako aztarnak igartzen dira oraindino ere. Grabaketaren hermetismoa gorde guran, Ertzaintzak eta Guardia Zibilak jagoletza-lanak egin zituzten arren, lurretik zein itsasotik, Muriola hondartzan grabatutakoa ikusi ahal izan da; modu batean edo bestean, telesailaren jarraitzaile amorratuek Gorlizko hainbat puntutatik ateratako argazkiak eta bideoak egin baitituzte. Hala, jakinarazitakoaren arabera, Tyrion Lannister eta Davos Seaworth pertsonaiak interpretatzen dituzten Peter Dinklage eta Liam Cunningham aktoreak egon dira

gurean, besteak beste; bi egunez gutxienez, lehorreratze txiki baten eszenak grabatu dituzte. Filmazio-lanak egin ahal izateko, 50 kamioi hurreratu ziren udalerrira. Ondorioz, ikusmin itzela eragin du herritarren artean, Roberto Muñoz alkatearen arabera. Modu berean, azaldu duenez, egun horietan bertako taberneak eskaeren igoera nabaritu zuten. Alkateak uste du, beste hainbat lekutan gertatu den bezala, udari begira telesailak eragin turistikoki nabarmena izango duela udalerrian; «jarraitzaile ugari hurreratzen da filmaketa-lanak egin diren lekuetara, eta horretaz baliatuko gara». ◀

KZ Guneak tailer ugari antolatu ditu datorren hilerako

Urria amaitzeaz dago, hortaz, bada garaia azarora begira ipintzeko. Hori dela-eta, Berangoko KZ Guneak datorren hilabetean antolatuko dituen ikastaroen berri eman du daborduko. Tailerrak aurrez aurrekoak edo *online* egitekoak izango dira, gaiaren arabera. Aurrez aurreko sei ikastaro egongo dira, eta horietan bakarria izango da euskaraz, IT txartela ateratzekoa, hain zuzen ere. Hori datorren azaroaren

28an izango da, astelehena, 11:00etatik 13:00etara. Horrez gainera, *online* tailerak egongo dira, barbarako Pinterest, Wordpress, Instagram, LinkedIn, Twitter, Dropbox eta Facebook sare sozialak zelan erabili ikasteko. 4 ordu iraungo duten saioetatik 40 ordukoetara bitarteko saioak daude, gaiaren arabera. Lehenengoa azaroaren 7an hasiko da, Pinterest sare soziala jorratuko du. ◀

harremanetarako: tutor.berango@kzgunea.net

Gipuzkoa Kalea, 2
48610 URDULIZ

94 657 15 24
685 764 662

info@kumarazentroa.com



Kumarazentroa
zentroa

www.kumarazentroa.com

TERAPIA ALTERNATIBOAK ETA ESTETIKA

Uribe Kosta

Berdintasuna lantzen hasteko

Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasun Politikarako Ordenantza martxan ipini du Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak. Uztailean onartu zuten.

Uribe Kosta Plentziako Udala izan zen Berdintasun-ordenantza bat onartu zuen lehenengoa, 2014ko azaroaren 25ean, hain zuzen ere. Hurrengo hilabeteetan batu zitzaizkion Barrika, Lemoiz eta Urdulizko udalak, eta azkenik, iazko maiatzean, Gorlizkoa. Aurten, berriz, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak onartu berri du Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasun Politikarako Ordenantza. Uribe Kostako Mankomunitateko teknikari Esti Anitua Vallesek azaldu duenez, uztailearen 27an egindako Udalbatza Osoak onartu zuen testua, eta urriaren 13tik aurrera martxan dago. Uribe Kostako Mankomunitateak onartu duen eta abian ipini den Berdintasun-ordenantza EAEko Berdintasun Planak ezartzen duenagaz bat datorrela azaldu du Anituak, «baina gure eskualdeko beharrietara egokituta». Hala,

onartutako testuak Mankomunitatea osatzen duten administrazioari, eta halakorik egonez gero, haren erakunde autonomo eta publiko guztiei aplikatuko zaie, baita Mankomunitateagaz lan-kidetzak hitzarmenak edo kontratuak izenpetzen dituzten erakunde pribatuei ere. Hala, Berdintasun Zerbitzuak arlo ezberdinetan egin beharreko gauzak azaltzen ditu, besteak beste; Gizarte Zerbitzuetan indarkeria kasuetan nola jokatu, aurrera eroan beharreko hezkidetzak-proiektuak edo jaietan berdintasunaren aldeko zeintzuk ekintza egin behar dituzten jasotzen ditu. «Berdintasun politiketan aurrera egiteko beste urrats bat da. Badakigu berdintasuna lortzeko arauak ez direla nahikoak, baina gutxienez aurrera egiteko pauso bat da», dio Berdintasuneko teknikariak. Horrez gainera, Mankomunitatearen azpiegitura eta organo guztietan parekidetasuna zeharka lan-



Urriaren 13an ipini zuten martxan Berdintasun-ordenantza.

tzeko aukera ematen du Ordenantza berriak. Laburbilduz, onartutako testuaren helburua da emakumeen eta gizonen berdintasuna Mankomunitatearen esku-hartze arloetatik sustatzea. Hala, honakoak hartuko ditu: berdintasun-balioak sustatu eta bultzatuko ditu hezkuntza-eremuan; sexu-aukera eta genero-identitatearen askotarikotasuna errespetatzea; berdintasuna errespetatzen duen lekuko kirol-politika pu-

blikoa diseinatu eta ezarriko du; jaietan berdintasunaren alde jokatu; ingurumenean genero ikuspegia txertatu; eta indarkeria matxista zapaldu. Azken horretan, oldartze mota hori zer den definitu, jarduteko esparru orokorra identifikatu, neurriak egokitu, prebentzio, sentsibilizazio eta ikerketa lanak egin, prestakuntza bermatu eta baliabideak, arreta eta babesa eskaintzea aurreikusi du Mankomunitateak, besteak beste. ◀

Errigoraren otzarak eta euskara

Aurten 20 nafar ekoizle batu dira ekimenera; gainera, saski bi eskainiko dituzte: beltza eta zuria; 50 euroan, bana.

Inoiz baino eskaintza zabalagoa dator Errigora ekimena. Izan ere, aurtengo kanpainak 20 ekoizleren produktuak otzara bi eskainiko ditu: beltza eta zuria. Horietakoren bat eskuratu gura dutenek azaroaren 8ra arte egin ahal izango dute eskaria, 50 euroren truke. Sakiak eskatzeko (gero, batzeko ere bai) 10 leku egongo dira Uribe Kosta eskualdean: Erandioko Gau Txori Kultur Elkartearen, Algortako AEK euskaltegian, Ardaska dendan, Itzubaltzeta/Romoko Branka tabernan, Getxoko udal euskaltegian, Algortako San Nikolas ikastolan, Gorlizko Jentilbaso AEK euskaltegian, Leioako AEK euskaltegian, Betiko ikastolan eta Plentziako AEK euskaltegian eskatu ahal izango dira.



info+: www.errigora.eus.

Horrez gainera, Internet bidez ere harremanetan pin daitezke ekimenaren antolatzaileak zein bultzatzaileak. Errigora Euskal Herria oinarri eta elkar-lana lanabes dituen ekimen herritarra da. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta «euskara ofiziala ez den eremuan» eragin gura du, eremu horretakoak propio diren produktuei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta

euskaraz. Hala, egunetik egunera gero eta zabalagoa den lagunarte batek ematen dio gorputza ekimenari; ilusioz eta anbizioz dabilzan herritar, nekazari, euskaltzale, ekoizle eta kontsumitzaileez osatutako sare batek. «Gure txikitasantetik elkarlan handi bat gauzatu nahi dugu Nafarroa Euskal Herria behar duelako eta Euskal Herriak Nafarroa», azaldu dute. ◀

Datuak

Saski mota bi

Beltza (50 euro)

Oliba-olio birjina estra, mahats-zukua, potxak, melokotoi-marmelada, arbendolak, borraja, pikillo-piper mamia, ardo beltza, ozipina, melokotoia almibarrean, orburu-bihotzak eta pikillo-piper osoak.

Zuria (50 euro)

Txokolatzeko gutuziak, pasta, arroza, polborioak, madaria almibarrean, eskalibada, pikillo-saltsa, ardo beltza, ozipina, melokotoia almibarrean, orburu-bihotzak, pikillo-piper osoak eta zainzuri estra lodiak.

Non eskatu

Erandio

Gau Txori Kultur Elkarte.

Getxo

AEK euskaltegia (*online* bidez ere eskatu daiteke), Ardaska denda, Branka taberna, Getxoko udal euskaltegia eta San Nikolas ikastola.

Gorliz


Jentilbaso AEK euskaltegia.

Leioa

AEK euskaltegia eta Betiko ikastola (*online* bidez ere eskatu daiteke).

Plentzia

AEK euskaltegia.



Getxoarte-Artium saria eta 2.000 euro emango dizkiote epai-mahaiaik aukeratuko duen lanaren egileari.

Ekitaldi batzuk

Azaroak 4, barikua

- 11:00 Inaugurazioa.
- 17:00 Bisita gidatua Getxoartetik, Programa Orokorreko artistakaz.
- 19:00 Bisita gidatua Nora Aurrekoetxeagaz.
- 19:00 Usoa Fullaondo artistaren berbaldia.
- 20:30 Jaime de los Ríos eta Lander Etxebarria Algortako Musika Eskolako kideen kontzertua.

Azaroak 5, zapatua

- 12:30 Bisita gidatua Nora Aurrekoetxeagaz.
- 17:00 Komisarioen topaketa eta berbaldia.

Azaroak 6, domeka

- 11:00 Bisita gidatua Nora Aurrekoetxeagaz.
- 12:30 Umeentzako «Lauki zuzenak eta espazioak» tailerra, Teo Arkibiriakagaz.
- 16:00 Elkarrizketa irekiak, EHUKo Arte Ederren Fakultateko ikasleakaz.
- 18:30 Eduardo Hurtado Getxoarteren egitarau-zuzendariaren berbaldia.

Artisten topaleku

Getxoarte Aretoa Areetako Xake Plazan zabalik egongo da azaroaren 4a eta 6a bitartean, goizeko 11:00etatik gauera arte bisitatu ahal izango da, doan.

Getxoarte Praktika Garaikideen Aretoaren aurtengo edizioak 2014an hasitako bideari jarraituko dio, gaur egungo artearen mundua zabaltzeko eta jendeari hurreratzeko; horretarako, bost programaz baliatuko da. Alde bate-tik, Programa Orokorrak ordezkaritza komertziala ez duten artisten 30 dizi-

plinarteko proposamen hartuko ditu, banakakoak zein taldekakoak. Proiektu horietatik 12 euskal artistenak dira, eta gainerako 18ak beste jatorri bartzuetako sortzaileenak. Beste alde batetik, Programa Hezigarrian, artistek zein bisitariak hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute, berbarako helduentzako bisita gidatuak eta tai-

lerrak. Umeentzako tailerrak ere izango dira Getxoarten, gaztetxoek sor-kuntzaren mundua ezagutu dezaten modu ludikoan. Bestalde, Programa Kuratoriala ere egongo da; horretan, artista eta arte-komisarioen esperientziak eta ikuspegi profesionala gerturatu dizkie Programa Orokorreko artistei zein azokan egongo den jendeari. Horiez gainera, Programa Zabalduan, artearen mundua eta horregaz zerikusirik ez duten beste arlo batzuk jorratu dira. Aurten, grafismoa lantzen duen La Taller gunea eta

Fem Box ikerlana izango dira protagonista. *Fem Box* hautatu dute Perimetroak beka jasotzeko. Beka hori Getxoko Udaleko Berdintasun Arloagaz eta Getxo Kirolak erakundeagaz elkarlanean bultzatu du Getxoartek, eta artearen bitartez lotzen ditu kirola eta generoaren ikuspegia, kasu honetan emakumeen boxeoaren mundua du ardatz. Azkenik, Programa Eszenikoak erakutsiko du arte garaikideak eta diziplina eszenikoak uztartzen, dantza eta performanceak kasu. ◀

info+: Getxo.eus

Leioan jokatuko dute hurrengo kanporaketa

Zapatuan, urriak 29, jokatuko dute Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udagoieneko Fasearen laugarren kanporaketa. Hitzordua Kultur Leioako auditoriumean ipini dute, 17:30ean. Bertan, eskualdeko bertso-laririk ez da izango, baina bertsoaldi ederrak entzuteko aukera izango da. Protagonistak honako hauek izango dira: Ibon Ajuriagojeaskoa, Txaber Altube, Joseba Artza, Joseba Barandiaran, Ander Elortegi eta Mikel Goirienea. Euretatik batek txartel zuzena lortuko du finalurrekoetarako. Osterantzean, jokatutako hiru kanporaketen ostean, Algortako Bertsolari Eskolako (ALBE) kideek ez dute sailkatzea lortu orain-



Eneko Abasolok irabazi zuen Sestaon. © BBE

dino, eta Zaldibarreko saiora arte itxaron beharko dute puntu nahikorik duten jakiteko. Imanol Uriak erraz dauka sailkatzea, eta Arrate Illarok eta Peru Vidalek, ostera, gaitzago. ◀

sarrerak: Bertsosarrerak.eus

Francoren bilobari gutuna antzezlanaren estreinatuko du urriaren 31n Leioako Artedramak

Frankismoaren aztarnei begira ipini-ko gaitu *Francoren bilobari gutuna* antzezlanak, erregimen hari «auzi simbolikoa» egiteraino, Erika Olaizola aktoreak aurreratu duenez. Artedrama konpainia leioztarrak sortu du obra, Dejabu Panpin Laborategia eta Le Petit Théâtre de Pain konpainiak elkarlanean. Unai Iturriagak eta Igor Elortzak idatzi dute, eta Ximun Fuchs da zuzendaria. Oholtzaren gainean Ander Lipus, Patricia Urrutia, Pako Revueltas eta Erika Olaizola izango dira, besteak beste. Astelehenean aurkeztuko dute jendarean Luhuson (Lapurdi), eta azaroaren 18an antzeztuko dute Leioan. ◀

info+: www.franco.eus

Javier Liñera artista sopoloztarraren *Barro rojo* antzezlanaren estreinatuko du Parisko Don Quijote jaialdian

Javier Liñera Cardas Getxon jaiotako aktore sopoloztarraren protagonista duen *Barro rojo* antzezlanaren estreinatuko du Parisko Don Quijote festibalean taulartzeko. Jaialdi garrantzitsu horrek 25. edizioa ospatuko du aurten, eta Liñerak antzezten duen obra ikusi ahal izango da bertan, Etxepare Euskal Institutuari esker. Emanaldia azaroaren 28an izango da. *Barro rojo*-k homosexualek frankismoan jasandako errepresioa lantzen du; drama, komedia eta kabareta generoak nahastuta. «Jendar-teak ez daki kontzentrazio-esparruak egon zirenik, ezta gayentzat kartzela bereziak zeudenik ere...» akordura eka-rriz zuten Liñerak iaz, estreinaldian. ◀

hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2016ko urriaren 27tik azaroaren 3ra arte



hiruka.eus



GETXO

Iaz 52 familiatako 220 lagunek parte hartu zuten Getxon egindako 26 bazkarietan. EGIZU

Aldameneko familiagaz bazkaldu gura duzuz?

Getxon, laugarrenez egingo dute Bizilagunak egitasmoa; kultur arteko bazkari horietan familien (edo lagun kuadrillen) arteko zubia eraikitzen dute mahaiaren inguruan. Topaketa bakoitzean, Getxo udalerrian edo Euskal Herrian sortutako sendi bat, Espainiatik kanpoko herrialde batetik etorritako beste familia bategaz elkar-tzen da. «Bazkari batean elkar ezagu-

tu, plater tipikoak konpartitu eta es-tereotipoak zein aurreiritziak ezabatu gura dituguz», azaldu dute antolatzaileek. Aurten azaroaren 13an izango dira bazkariak, Egizu euskara-taldearen, Getxoko Etorrimak Plataformaren, Ibilki elkartearen eta Udalaren ekimenez.

Orain dela bost urte hasi ziren Euskal Herrian ekimen hori egiten,

Gipuzkoako SOS Arrazakeria taldeak antolatuta; jatorria Txekiar Errepublikan dauka, orain dela 11 urte. Iaz 52 familiatako 220 bat lagunek parte hartu zuten Getxon, Bizilagunak ekimenaren barruan egindako 26 bazkarietan. Bazkari bat partekatu edo dinamizatu gura dutenek aurretik izena eman behariko dute. ▶


Izen-ematea: 644 595 191 (Claudia) / getxobizilagunak@gmail.com

ERANDIO

Fernando Morillo idazleagaz hitzordua ipini dute Astrabuduan

Josu Murueta plazako liburutegia bisitatuko du Fernando Morillo idazle azpeitiarrak, eguen honetan, urriak 27, 18:00etatik aurrera. Morillok euskarazko gazte-literaturako 40 lan baino gehiago sortu ditu. Saioa doakoa da, baina liburuzainek eskatu dute aurretik izena emateko, lekua mugatua baita. ▶

Izen-ematea: 944 672 946



FERNANDO MORILLO



GETXO

Herrikoa dantza-saioa eskainiko du Zarena Zarellako taldeak

Iparra Galdu Gabe jardunaldiak egingo dituzte zazpigarrenez Getxon. Hala, zapatu honetan, urriak 29, *Herrikoa* dantza-ikusizuma eskainiko du Sempereko Zarena Zarellako taldeak. Hitzordua Algor-tako Telletxe plazan ipini dute, 12:30ean; sarrera, doan. 50eko hamkadako jantziek ikusleak garai-ko giroan murgilduko dituzte. ▶

2016/10/27 - 18:00

Felices 140 filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Itzartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/10/27 - 19:30

Txikia plazaren alde

Txikia plaza (Algorta) | Getxo

Algortako Ezker Abertzaleak deituta. Ebazpen judizial baten ostean, izena aldatuko ei dio Getxoko Udalak Hezetasun auzoko plazari.

2016/10/27 - 19:30

Bea Salaberri idazle baxenafarrekin solasaldia

2016/10/29 - 17:00

Kung Fu Panda 3 filma

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/10/29 - 17:30

Bizkaiko Bertsolari

Txapelketaren kanporaketa

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Informazio gehiago: www.bertsozale.eus

2016/10/29 - 19:00

Jurassic World filma

Berango Antzokia | Berango

Pelikula 12 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

URIBE KOSTA

Euskeraz Olgetanek agur esango digu

Maiatzera arte itxaron behariko dute neska-mutilek Euskeraz Olgetan egitasmoagaz gozatzeko. Eguen honetatik doimekara, Plentzian, Urdulizen, Gorlizen eta Sopelan egingo dituzte agur-jaiak. ◀
info+: www.uribekosta.eu

LEIOA

Kartoi-tailerra egingo dute, euskaraz

Umeek eta euren senideek euskaraz jolaslasteko Barikuetan Jai egitasmoa bueltan egongo da urriaren 28an, 17:30etik 19:30era bitartean, Kultur Leioaren inguruan. Egun horretarako, kartoi-tailerra antolatatu dute. ◀

ERANDIO

Ipuin-saioa antolatu dute Erandiogoikoan

Bariku honetan, urriak 28, *Bazen noiz-bait nonbait norbait zerbait egiten* ipuin-saioa eskainiko du Kontu Kantoi taldeak, Erandiogoikoko gizarte-etxean. Ikuskizuna 19:00etan hasiko da; euskaraz izango da. ◀

2016/10/29 - 20:00

Carol filma

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/10/30 - 17:30

Dantzaldia

Azoka zaharra (Altzaga) | Erandio
Los Palmeras orkestragaz. Sarrera, doan.

2016/10/30 - 18:00

A la luna familia-antzezlanak

Kultur Leioako entzungela | Leioa
Iraya eta Voilà (Madril) taldeakaz. 3 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,75-5 euro.

2016/10/30 - 18:00

Hotel Transylvania 2 filma

Berango Antzokia | Berango
Familia osoarentzat. Gaztelaniaz. Doan.

2016/10/31 - 11:30

Arimen Gaua

Boulevard eta Estartex kaleak | Leioa
Mugi Leioako Gazteak elkarteak Udalgaz eta merkatariaren elkarreagaz antolatuta. Goizean, umeentzako tailerrak egingo dira; eta, arrastian, euskal dantzak herritarrentzat. Gaeuen, antzerki-ikusizuna, faroltxoak askatzeko ekitaldia eta erromeria egingo dira, besteak beste. Info+: www.hiruka.eu/agenda

2016/10/31 - 18:30

Liburu-foruma

Udal liburutegia | Barrika
Gertuko Auzokide Elkarreak antolatuta. Michela Murgia (Cabras, Italia, 1972) idazlearen *La acabadora* liburuaren inguruan berba egingo dute. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/11/02 - 19:30

Recolección de setas: presente y futuro berbaldia

Algortako kultur etxea | Getxo
Basozaleak elkarrean XXVI. Mikologia Jardunaldiak. Aurelio Villamayor mikologoagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/11/03 - 19:00

Cocinando con setas berbaldia

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Perretxiko Astea. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/11/03 - 20:00

Fernando bakarlariaren saioa

Silver's Tavern (Kirol Portua) | Getxo
Getxo Live! ekimena. Sarrera, doan.

orrerene erakustaretoa (Algortan) | Getxo

Iparra Galdu Gabe jardunaldiak. Egizuk antolatuta. *Baionak ez daki* liburuaz berba egingo dute. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/10/27 - 19:30

Ecología de los hongos perretxikoei buruzko berbaldia

Algortako kultur etxea | Getxo
Basozaleak elkarrean XXVI. Mikologia Jardunaldiak. Zigor Ugarteixe mikologoagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/10/28 - 20:00

Film laburren erakustaldia

Areetako musika-eskola | Getxo
Animazioaren Nazioarteko Eguna. Begira elkarreagaz elkarlanean, Annecyko (Frantzia) jaialdian aurkeztutako 10 pelikula emango ditu Getxoko Kultur Etxeak. Gaztelaniaz. 2,90 euro.

2016/10/28 - 20:00

Por cierto, se llama François antzezlanak

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2016/10/28 - 21:00

Xabi Aburruzaga Band

Kultur Leioako entzungela | Leioa
Musika Arimarekin zikloa. Sarrera: 6-12 euro.

2016/10/29 - egun osoan

Indabada Mundiala

Txiki-Otaegi (San Nikolas) plaza | Getxo
Besteak beste, azoka, bazkaria, enkantea eta poteoa egingo dira. Bazkarirako ateratako azken 50 txartelak Hator tabernan eros daitezke. Prezioa 10+1 eurokoa da, euro bat iaizko isuna ordaintzen laguntzeko izango da. Informazio gehiago: www.hiruka.eu/agenda

2016/10/27 - 19:30

Kuxkuxtu txaranga

Torrerene erakusketaretoa (Algortan) | Getxo
Iparra Galdu Gabe jardunaldiak. Egizuk antolatuta. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/10/27 - 19:30

Ensemble Vocal Ámbar abesbatza kubatarra

Erredentorearen eliza (Algortan) | Getxo
Aste Korala. Sarrera, doan.

2016/10/28 - 19:30

Tonos Humanos abesbatza kolonbiarraren emanaldia

Erredentorearen eliza (Algortan) | Getxo
Aste Korala. Sarrera, doan.



Laurent Delforge konpositore belgikarrak zuzenean jotzen du ikuskizunean. © ENCLAVE ARTS DEL MOVIMENT

Lonely together dantza-saioa, Leioan

Roberto Oliván katalanak eta Gregory Maqoma hegoafrikarrak elkarrekin dantzatu bat eskainiko dute. Hala ere, bakardade sentimendu sakona erakusten dute bietan, dantza adakorraren bitartez. Bakardade hori bakarrik lausotzen da elkarrekin konpainiari esker. ◀

Noiz: Azaroak 4, barikua.

Ordua: 20:30

Non: Kultur Leioako entzungela.

Sarrera: 7,50-15 euro bitartean.



ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN
V. LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

argihizkiak

Urriaren 30era arte

Torreneko erakusketa-aretoa (Algortan)





Keltik izeneko proiektu berriaz gozatzeko aukera eskainiko du portugaletarrak Leioan. © ABURRUZAGA

Xabi Aburruzaga, Leioan

Trikitilari portugaletarrak kontzertua eskainiko du urriaren 28an, Kultur Leioako Auditoriumean, 21:00etan.

Xabi Aburruzaga trikitilari portugaletarraren kontzertuaz gozatzeko aukera egongo da bariku honetan, Leioan. Musika-emanaldia Kultur Leioako Auditoriumean izango da,

iluntzeko 09:00etatik aurrera; sarrera 6 eta 12 euro bitartean egongo da salmentan. Saio horretan, trikitilariak bere proiektu berria aurkeztuko du, *Keltik* izeneko. Horretarako, Aitor Antuejo (gitarra, ahotsa), Mikel Artieda

(baxu elektrikoa), Igor Telletxea (perkusioa), Xabier Zeberio (biolin elektrikoa, *nyckelharpa*) musikariak egongo dira Aburruzagagaz batera. Adituen arabera, Xabi Aburruzagak «betidanik» izan du musikarekiko pasioa eta, daborduko, erreferente bihurtu da trikitiaren munduan. Musika-tresna horregaz, jaialdi ospetsuenen agerlekue-tan ibili da eta izar ezagunakaz lan

egin du, berbarako, Oskorri, Alasdair Fraser & Natalie Hass, Cristina Pato, Sharon Shannon, Carlos Núñez edo Gwendalegaz.

Usadioa eta modernitatea lotzen ditu bere diskoetan: *Bizkaiko Trikitixa* (2007), *Denboraren naufragio* (2009), Ortigueirako Zelta Munduko Nazioarteko Jaialdian saritutako *Geure* (2013) eta argitaratu berri duen *Keltik*. «Melodia herrikoiek eta berak sortutakoek irudimenezko bidaia egiteko gonbita luzatzen diote ikusleari, folk garbienetik jaxzen soinetara doana», azaldu dute adituek.

Xabi Aburruzagaren biografia

Portugaleten jaio zen 1978an, eta 7 urte-gaz hasi zen eskusoinua jotzen. Rufino Arrolari (Bizkaiko trikitilarien erreferente historikoa) egindako bisita batean aldatu ei zitzaion dena; izan ere, trikitia bat eskuartean zeroala bueltatu zen etxera. Berak konposaturiko 4 abestiren maketa eta bere lehenengo diskoa dira eman zituen lehenengoak; Santutxuko Karmelo ikastolari egindako abestia, alegia. Orduetik, hamaika abesti eta disko argitaratu ditu, soinu tradizionalak modernoagoak diren batzuek nahastuta. Ondoren, DND zigilu diskografikoa sortu zuen, eta horren izenpean hainbat lan plazaratu ditu. Bere azkenengo lana aurten aurkeztu du, irailean; horren doinuak ezagutaraziko ditu hilaren 28an, Kultur Leioako Auditoriumean. ◀

Hitza emanda



Hilak

Hutsaren saltzaileak hain dira abilak, merkantzia sartzeko truko biribilak.

Urria, azaroa, berdin dio hilak, Halloween, Domu Santu... salgai daude hilak!



DANIEL DE MIGUEL AVECILLA
Bertsolari algortarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Alberto Díez historia-ikertzaileak bere azken liburua aurkeztuko du azaroaren 4an, Sopelan

Azaroaren 4an, barikua, *Vascos, burgaleses y riojanos primos hermanos 1016-2016* izenburudun lana aurkeztuko du gaur egun Berangon bizi den Alberto Díez Saiz (Gorliz, 1933) idazleak. Hitzordua 19:00etan ipini dute, Sopelako Kurtzio kultur etxean; sarrera, doan. Saioa gaztelaniaz izango da. Díezek historia-ikertzailetzat eta dokumentalistatzat dauka bere burua; horren adibide ondokoa: *Berango, 40.000 años de historia* liburua, 1990an plazaratu zuen eta pasa den urtean berrargitaratu. Gainera, ez zen 15 urte atzerago idatzitakoa berbaz berba kaleratzera mugatu; 250.000 urte atzera eginez, Berangoko historiaurreko garaietan gehiago sakondu zuen ikertzaileak iazko argitalpenean. Aipatutakoez gainera, beste dozena bat lan dauzka Díezek; horietako batzuetan Bizkaiko historiako hainbat gai dauzka berbabide, batez ere, errotei lotukoak; eta Burgosko hainbat herriren historiak ere bai. ◀

Argia Ereiten sarirako izenak aurkez daitezke

Azaroaren 4ra arte aukera egongo da Argia Ereiten Euskara Saria aurten nori eman proposatzeko. Getxoko Udalak ematen du saria, eta aurtengoa zazpigarrena izango da. «Euskararen gizarte erabilera babestu, sustatu edo hedatzeko zereginetan nabarmendu diren erakunde, elkarte edo pertsona fisiko zein juridikoak gorai-patzea» da ekimenaren helburua. Hautagaiak aurkezteko inprimakia www.getxo.eus webgunetik jaits daitezke eta euskara@getxo.eus helbide elektronikora bidaltzea beharrezkoa da.

«Hautagaiak banakoak, taldeak, elkarteak edo kolektiboak izan daitezke, beti ere getxoztarrak edo bizitzaz zein jardunbidez Getxon finkatutakoak bada», udal-iturriek azpimarratu dute. Kontuan hartuko dituzte proposatutako «lan edo jardueraren kalitatea eta esanahia, euskararen normalizazioan egindako ekarpena eta orain arteko ibilbidea». Epaimahaia Imanol Lan-



lazio sarituak, garaikurra eskuan.

da alkate getxoztarrak, Koldo Iturbe Euskara zinegotziak eta Getxoko Aholku Batzordeko kideek osatuko dute.

Hurrenez hurren, Laura Lapeyra Zabalak ikastetxeko IGEko kideak, Bittor Egurrola euskaltzaleak, San Nikolas ikastolak, Nahikari Ayo bertsolaritza-irakasleak, Gobela ikastolak eta Josu Esnaola eta Alfredo Lopez de Gereñu euskaltzaleek jaso dute orain arte Argia Ereiten Euskara Saria. Elkarrekin, euskaltzaleek, ikastetxeek edo norbanakoek proposa ditzakete hautagaiak. ◀



Umorea

JOKIN
DE PEDRO
Idazlea

Umorea beltza: irribarrea izozten denean

Kolore beltzak duen konnotazio goibel, triste, tragikoa aintzat harturik, nola barre eragin, zelan sortu umorea eremu lazgarri horretan? Sarkasmotik zer edo zer eduki behar sufrimenduari eta ezbeharri barre egin nahi horrek.

Literaturan, batzuk aipatzearen, Saki, Roald Dahl —eta batzuen ustez Kafka ere bai— izan ditugu maisu, gure Jon Mirande handia ahaztu barik; euskal literaturan umore beltzezko harribitxi bat dastatu nahi duenak irakur beza haren *Eresi kantari*: ez da zapuzturik geldituko irakurlea *Goizean goizik* balada misteriotsuaren *remake* moderno magistrala irakurrita.

Zineman Hitchcock handia da erreferente bat umore beltzaren erabileran eta bai gaurko Coen anaiak eta Tarantino ere.

Umorearen muga-mugan dago, egon ere, gertakizun malerusen inguruan irri egitea, ez bada nork bere patu latzari egiten dionetan, nork bere burua jartzen duenean barregarri. Puntu horretara heltzen direnak leudeke, nire iritziz, umore mota zail eta krudel horren gailurrean.

Bi anekdota bitxi ekarriko ditut, biak ala biak norberaren heriotzari barre egiten diotenak.

Goiago aipatu dugun H. H. Munro «Saki» idazlearena da lehena. Lehen mundu gerran gaude. Obus baten eztandak sortutako ketzaren erdian, Munro sarjentuaren ahotsa entzuten da: «Amata ezazue behingoz zigarro madarikatu hori!» Esaldi xelebrea esateaz batean-ia, bizia kenduko zion bala batek zulatu omen zuen idazlearen burua.

Beste adibidea Groucho Marxek bere hilobirako epitafio moduan aukeratu zuen esaldia da, nahiz eta batzuen iritziz legenda hutsa izan: «Barkatuko didazue zutuntzen ez banaiz...».

Eta hau guztia egia bazan edo ez bazan, sartu dadila kalabazan eta atera Derioko kanposantuan. ◀

«Eskola eta familien arteko sareak sortu behar ditugu»



Haur Hezkuntzako bigarren zikloko zein Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleei, irakasleei, begiraleei eta gurasoei dago zuzenduta Dardara.

Dardara heziketa-proiektua sortu du Maitane Aranaga Libano gizarte-hezitzaile erandioztarrak. Adimen emozionalean oinarrituta dago egitasmoa.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Zelan bururatu zitzaizun Dardara heziketa-proiektua sortzea?

Dardara heziketa-proiektua urte askotan egon da «kozinatzen» nire buruan. Ogibidez, gizarte-hezitzailea naiz; lanean izandako esperientzien bidez, gure artean, kezkak eta zalantzak sorrarazten dituzten errealitate konkretu batzuk daudela nabaritu izan dut egon naizen familia eta eskola bakoitzean. Hori horrela, interesgarria eta beharrezkoa iruditu zitzaidan esparru bat sortzea, era kolektibo batean, horien inguruan hausnartu ahal izateko. Izan ere, dauzkagun zalantzak edo kezkak isilpean mantentzen ditugu askotan. Holakoak partekatzea lasaigarria da.

Zertan datza egitasmoa?

Adimen emozionalean oinarritutako heziketa-proiektua da. Hainbat tailer eta solasaldien bitartez jorratzen ditugu gizarteko errealitate desberdinak; baina, denak adimen emozionalaren ikuspuntutik aztertuta. Giza abileziak eta hazkuntza-prozesu egoki bat edukitzeko guztiz beharrezkoak dira emozioen kudeaketa eta ezagutza.

Tailer ezberdinak eskaintzen dituzu.

Adimen emozionala eta giza abileziari buruzko tailerra gurasoei eta heziketa-eragileei zuzenduta dago. Gako ezberdinak ematen dizkiegu, emozioen kudeaketa errazagoa egiteko. Bestalde, *bullying*ak alarma izugarria sortu du gizartean, azkenaldian; ematen du dena

“ Umeen sormena garatzea garrantzitsua da, bizikidetzaren positibo bat lor dezaten ”

dela eskola-jazarpenera edo ezertxo ere ez dela. Batetik *bullying*a zer den argitu, eta, bestetik, horrelako egoerak zelan kudeatu erakutsi gura dugu.

Denbora zelan kudeatu ere lantzen duzue, ezta?

Behin eta berriro diogu ezertarako denborarik ez daukagula; kontua da egunak 24 ordu baino ez dauzkala, ez dago ordu gehiago ateratzeko modurik. Tailer honen bidez, ordu horiek zelan aprobetxatu eta lehenetsunak

zeren arabera antolatu irakasten diegu gurasoei. Horrekin batera, kontuan hartzekoa da norberarentzako denbora beharrezkoa dela; batzuetan, eskolaz kanpoko jardura askotara eramaten dugu semea edo alaba, umea automata bilakatuz.

Bestalde, umei begirako tailerrei dagokienez, zer eskaintzen duzue?

Batetik, jolasen bitartez, emozioak zeintzuk diren ikasten dute umeek, eta emozio horiek zer eragiten dieten. Bestalde, sorkuntza eta gorputz-adierazpenaren tailerra ere badago. Horiek denak funtsezkotzat jotzen ditut umeen hazkuntza-prozesuan; izan ere, hezkuntza formalean gaitasun oso kognitiboak garatzen dituzte, artearekin edo emozioekin zerikusia daukaten beste diziplina batzuk alde batera utziz. Ideia da sormena garatzea, tresna moduan erabili ahal izateko, bizikidetzaren positibo bat lortzeko. Musika eta dantzarekin lan handia egiten dabilta.

Zer lortu gura zenuke zure egitasmo honeguz edo honen bitartez?

Komunitatean eta hezkuntza-sisteman esparru bat izatea nahiko nuke; azken finean, hezkuntza-sareak sortzeko aukera izatea, gurasoen eta eskolaren arteko sareak. Alde handia dago eskolaren eta familien artean. Transmisio-bide gutxi daude. Egitasmoaren helburu nagusietako bat da hori. ◀

«Belaunaldi gazteak xaxatzeko idazten ditut saiakera-liburuak»

Mitxelko Uranga Alvarez (Berango, 1978) idazleak irabazi du Euskarazko Saiakerako Euskadi Saria, *Tartaroa. Mina, boterea eta egia* (Pamiela, 2015) liburua dela-eta. Globalismoa eta kontsumismoa dira lan horren hari nagusiak. Gaur egun Gorkizen bizi den berangoztarra Filosofian doktorea da. Gai hori irakasten du Sopelako Ander Deuna ikastolan.



TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Espero zenuen Euskarazko Saiakerako Euskadi Saria irabaztea?

Ezusteko itzela izan zen. Ospe handiko idazleak izaten dira Euskarazko Saiakerako Euskadi Saria irabazten dutenak: Jose Azurmendi Otaegi (Zegama, Gipuzkoa, 1941), Joseba Sarrionandia Uribelarrea (Iurreta, Bizkaia, 1958), Joseba Gabilondo Alberdi (Urretxu, Gipuzkoa, 1963)... Ni, ordea, ez nau inork ezagutzen. Ez nuen inondik inora espero.

Zelako garrantzia ematen diozu jasotako sariari?

Ekonomikoki, izugarritzko dirutza da, 18.000 euro; holako sari bat irabazita ez bada, denok ondo dakigu pentsatzeak eta hausnartzeak ez duela diru askorik ematen. Zentzu horretan, oso ondo dago. Horretaz gainera, norberaren autoestimurako primeran dago. Azkenik, ateak zabalduko dizkidan ala ez, horrek ez nau batere kezkatzen; oso ondo nago nagoen lekuan, eta ez daukat inolako asmorik beste inora joateko.

Orain arte egindako ibilbidea saritu egin dutela uste duzu?

Soberan, esango nuke nik; lehen aipatu bezala, Azurmendik, *Sarrik* eta Gabilondok daukaten ibilbideei erreparatuta... Nik, egia esan, zenbait argitalpen baditut, baina oraindik gaztea naiz. Hain zuzen ere, saria ez zidatela niri emango pentsatzeko beste arrazoietako bat hori zen. Epaimahaiak esaten duenagatik, nolabait «ahots berri bat» saritu omen dute. Nik ez daukat oso argi zein izan den gakoa.

Nor izan zenuen akorduan saria jaso zenuenean?

Lehenik eta behin, emazteaz gogoratu nintzen; izan ere, familia daukagunok soberan dakigu horrelako lanak egiterakoan bikotekideak zama hori bere gainean hartu behar duela. Horretaz gain, nirekin batera, lehiakide zen nire lagun min Eduardo Apodaka Ostaikoetxeaz (Bilbo, 1965) oroitu nintzen. Saria berak irabaziko zuela uste nuen; *Identitate eta anomalia* bere lana kristoren liburu puska da-eta. Saria jasotzerako orduan, eskerrak emateaz gain, horixe bera esan nuen: sorpresa izan dela niretzat idazle

«Ezin da gaur egungo arazo bat bera ere ulertu globalizazioa ulertu barik. Harrapatuta gaude; saihestezina da»

gaztea naizelako; eta, horretaz gain, Eduk merezi zuela esan nuen, ibilbide oparoa daukalako.

Zer estimatzen da gehiago: dirua edo aipamena?

Zorionez, ez daukat behar ekonomiko handirik; eta ospari dagokionez, ez dut behar. Beste nonbaiten esan nuen ez naizela plaza-gizona, ez naizela ego handikoa; nahiago dut ezkutuan egon. Kasu hone-

tan, diruak mesede handiagoa egin dit, sariaren ospeak berak baino gehiago.


Zer nabarmen dezakezu *Tartaroa. Mina, boterea eta mina* saiakera-liburuaz?

Batetik, Juan Ignacio Artzuaga antropologoak eta beste batzuek esaten dute mitologiak dagokion lekua berreskuratu behar duela; neuk ere horren aldarria egiten dut. Liburuan, *Tartaroa* bera, izatez, izaki mitologikoa da. Horretaz gain, kapitulu bakoitzeko abiapuntua mito bat da beti; izan ere, mitoeak, aspaldikoak edo berriak izan arren, beti daukate nolabaiteko harreman estua errealitatearekin. Niri, gainera, balio zaizkit metafora gisa gaur egungo egoera ere ulertzeko.

Bestalde, irakaslea naizenez, nire ikasleak eta be-
raiekin dauzkadan eztabaidak izaten dira idazteko pizgarria. Beti dago zalantza gazteak despolitizatu-
ta ote dauden edo inplikatzaren diren... Horri dagokio-
nez, oso ezkorra naiz; etortzen zaizkidanean, no-
raezean dabiltzala eta politikaren inguruan nahiko
ezjakinak direla sumatzen dut. Beste arrazoi bat da
horrelako liburuak idazteko. ◀

Epaimahaiaren arabera, «egungo pentsamendu filosofikoetan gako diren eztabaidetan sakontzeko» aukera ematen duten gogoetak plazaratu dituzu.

Gehiegi esatea dela uste dut. Eskertzen dira hitz horiek, baina, lehentxeago ere esan dizut: ni ez naiz neure burua estimatzen duen horietarikoa. Egia da,



Sinopsia

Desertua geroz eta handiagoa da, kuantitatiboki zein kualitatiboki; ez dago, ordea, desertuari muzin egiterik. Desertua gainera etorri zaigu, berriz ere, eta ez dago ihes egiterik. Zorigaitza, atsekabea eta tristura nagusitu dira paraje lehor honetan, eta ez dirudi mugarik ezagutzen duenik. Leku guztietatik mundu hau posibleen artean hoberena dela eta kexatzeko arrazoi nahikorik ez daukagula entzun ohi dugun arren, sintomatologiak ez du holakorik adierazten. Zoriontasuna inoiz baino gehiago eta nabarmenki ospatzen duen kultura eta garaia bizi omen dugu, paradoxikoki zoriontasunaren behar handien duen kultura denean hain justu. Usteko zoriontasun hipermoderno desertuko baldintzek eragindako ilusioa baino ez da, espejismoa. Basamortuko gizarte mingarrian bizi gara egun, eguzkiaren eta harearen arriskuen menpe. Ongi etorri desertura!

neurri handi batean, egunerokoa badela planteatzen den guztia. Tesi filosofikoa egin nuenean, gai horiek jorratu nituen; hortaz, badago ikerlan bat eta gaur egungo analisi bat.

«Egungo gizartearen beldurrak eta mamuak» berabide daukazula ere esaten dute epaileek.

Jorratzen ditudan gaiak asko dira. Alde batetik, globalizazioa daukat hizpide; izan ere, ezin da gaur egungo arazo bat bera ere ulertu globalizazioa ulertu barik. Horretan gaude harrapatuta; saihestezina da. Horri lotuta, globalizazioak dakartzan ondorioetako batzuk aipatzen ditut: guztientzat arazo bihurtu diren ekologia, biktimizazioa, botere-harremanak... Baina, bereziki, herri-mugimenduen nolabaiteko porrotaz edo ainguraketaz hitz egiten dut; eta horrekin batera, hiperkapitalismoaren kontsumismo bortitza. Ematen du hori dela gure utopia bakarra: ea lortzen dugun gero eta gehiago kontsumitzea, sekula ase barik. Globalizazioa eta kontsumismoa dira liburuaren haria.

Epaimahaiak dio «saiakera ulerterraza» erabiltzen duzula. Ahalegin berezirik egin duzu horretan?

Bai. Egia da tesi edo ikerlan bat egiten duzunean asko irakurtzen duzula, terminologia berri asko ezagutzen duzula, eta perspektiba galtzen duzula azkenean, erabiltzen duzun hizkuntza hori ulerterraza den ala ez nabaritzeko. Lehenengo trilogia idatzi nuenean, jendeak esaten zidan: «ez dizugu piperrik

bere ulertu; ia modu ulerterrazago batean idazten duzun». Pamiela argitaletxearekin atera ditudan bi liburuetan, *Tartaroa. Mina, boterea eta mina* (2015) zein *Eros(ki). Merkatuaren erotizazioa, erotismoaren merkantilizazioa* (2012) saiakeretan, ahalegindu nintzen hizkuntza ulerterrazagoa erabiltzen, eta epaimahaiak aintzat hartu du.

Euskal Herriaren inguruan ere idatzi duzu.

Espektroak trilogia euskal kulturaren eta nortasunaren inguruko ikerketa bat da, esparru desberdinetatik

“ **Nire apustua euskara hutsean idazten jarraitzea da eta, gero, itzulpenak badatoz, ondo etorriak izan daitezela** ”

begiratura: antropologia, psikologia, filosofia... Hirugarren saiakera argitaratuta, «esanda dago dena» pentsatu nuen, eta pasatu nintzen nire bigarren kezka horretara: kapitalismoa eta kontsumismo bortitza.

Horrenbestez, pentsaraztea da zure helburua?

Saiakerak idazten ditugun guztion helburu nagusia hori dela uste dut, besteengan eragina izatea. Era-

gina zer nolakoa izango den ez dago igartzerik; baina, printzipioz, hori da pizgarria. Lehen esaten nizun moduan, sikiera, ea nire ikasleak edo belaunaldi gazte hauek xaxatzeko edo ernatzeko modurik dagoen.

Zelan hartu dute saria Sopolako Ander Deuna ikastolako zure ikasleek?

Ni baino askoz hobeto hartu dute; ni erabat lotsatuta nengoen bitartean, «Zorionak zuri» abestia kantatuz hartu ninduten. Gainera, nik ez nien ezertxo ere esan; beraiantzat ere ezustekoa izan zen.

Zer da errazagoa eskolak ematea edo idaztea?

Nik biak maite ditut; biak plazer handiz egiten ditut. Bestalde, biek dituzte arazoak. Alde ilunagoa zeinek izango lukeen? Bada... eskolak emateak. Baina, ez eskolak emateak berak, inguruan dagoenak baizik: nagusi bat daukazu, burokrazia bat dago, guraso batzuk daude bakoitza bere pentsamoldearekin... Liburu bat idazten duzunean, ordea, idazten duzu eta ez diozu inori inolako azalpenik eman behar.

Gogoko izango zenuke zure lana beste hizkuntza batzuetara itzultzea eta argitaratzea?

Euskadi Sariak beste 4.000 euro ematen ditu itzulpena egitea nahi baldin baduzu. Egia da inguruko elebazarrek maiz esaten didatela noiz demonio idatzi edo itzultzen dudan zer edo zer gaztelerara. Nire apustua euskara hutsean idaztea da eta, gero, itzulpenak badatoz, ondo etorriak izan daitezela. ◀



Jokalarien %55 emakumeak dira; entrenatzaile eta laguntzaileen artean, %30 dira, oraindino.

Getxo Saskibaloit Taldea, aparta izateko bidean

Klub handia da Getxo Saskibaloit Taldea, «aparta» ere izan gura du. Mezu horregaz, bere 23 taldeen aurkezpena egin zuen pasa den barikuan, Faduran. Denera, 257 jokalaria, hamaika entrenatzaile, 3 koordinatzaile eta zaleen familia zabal bat dira.

Fadurako harmailak bete egin ziren pasa den barikuan. Ez ze goen partidarik eta ez zuen inork hiruko zoragarririk bota 6,75eko marraren atzeko aldetik. Ez zen beharrezkoa izan; ehunka lagunek arreta, gogo eta errespetu handiz jarraitu zioten Bizkaiko klub klasikoa den Getxo Saskibaloit Taldearen aurkezpenari.

Aste-akabuetan ohi duten legez, kantzaren erdira atera ziren talde denak, banan-banan; Bizkaiko eta euskal saskibaloien kategoria denetan Getxoren koloreak defendatuko dituzten jokalaria. Eskola Kiroletan dabilta 11 talde, minibasketean hasi eta gazte-mailaraino; federatutakoak, hamabi dira. 13 emakumeek osatzen dituzte, beste 10 gizonezkoek. Publikoak txalo-zaparradaz hartu zituen jokalaria eta entrenatzaile denak.

Bihotz handiko kluba

Klubak duen talde-kopuru handia eta haietaz arduratzen diren entrenatzaileen ekarpena nabarmendu zituen Getxo Saskibaloit Taldearen presidente Carlos Sergiok. Era berean, berba onak izan zituen zale-talde zabalarentzat. Azkenik, azpimarratu zuen Fran García, David Saiz eta Alberto Lodeiro koordinatzaileek egiten duten behar

handia. Harmailak berretsi zituzten Sergioren goraipamenak, txalo-zaparrada zaratatsu eta bero batez. Presidentearen ustez, kirol-elkarteak «bihotz handia» dauka. Horrez gainera, Getxo Saskibaloit Taldea «klub handia» dela ziurtatu zuen ehunka lagun aurrean, hanka sartzeko inolako aukera barik. Izan ere, «azken urteotan hazteko egindako lan onari esker» gaur egun «kirol proiektu ona» daukela agertu zuen. Horregatik, eskaera batzuk egin zizkien klubaren estamentu denei. Hasteko, «klub handia» izatek «aparteko kluba» izateko bultzada eskatu zien batutakoei, nor bere ekarpena eginda. Elkartek denak harroazteko konpromisoa eskatu zien jokalariei eta entrenamenduetan eta

partidatan nor bere onena eman dezan aholkatu zien, Getxo Saskibaloit Taldean pasatu zituzten garaiak gogora ekartzerakoan «zoragarria» izan zela esateko aukera izan dezaten hemendik hogeit urtera. Baina gogorazi zien «horretarako modu bakarra» dagoela, «egiten duzuen kontu orotan bihotzaren %100 ipintzea».

Eredugarriak izatea

Harmailak zaleei, horietako asko eta asko jokalarien gurasoak direnei, Albert Einstein fisikariaren aipu bat oparitzuz, hurrengo eskaera egin zien taldeko presidentek: «eredugarria izatea ez da hezteko modurik onena, bakarra baino». Horregaz batera, eredugarriak izateko eskatu zien zaleei.

Neska gazteak eta Villanueva

Fadurako aurkezpenaz gainera, beste kontu batzuk ospatu ditu saskibaloit-klubak. Batetik, emakumeen gazteen eskola-taldeak garaipena lortu zuen denboraldiko lehenengo partidatan, Ayalde ikastetxearen sariketa irabazita. Getxoko neskek Ayalde eta La Salle taldeak garaitu zituzten, ohiko partidatan,

hirukoan jaurtiketan eta trebetasun-txapelketan. Bestetik, umeen errendimendu-taldeko jokalaria Mikel Villanueva deitu du Bilbao Basket taldeak, Madrilen jokatu diren Kopa txikiaren kanporaketetan parte har dezan, datorren zapatatik martitzenera. Erlantz Pazos eta Javi García teknikoak ere han izango dira. ◀

«Partidetara joaten zaretenean, jendeak esan dezala Getxok zelako zale apartak dituen; zein ondo jokatzen duten; zein ondo irabazten duten; eta zein ondo galtzen duten ere bai», esan zien Faduran batutakoei Carlos Sergiok. Ostera, eskaera zuzenagoa egin zien kantxan zeuden gurasoei: «gure neska-mutilek ikasi behar duten egunetan kontuan har ezazue entrenamendua ere haien ikasketa-prozesuaren barnean dagoela», kirolak ere, «persona gisa heziko baititu».

Bestalde, denei eskatu zien errealistak izatea: «hemendik oso jende gutxi biziko da saskibaloiaz. Espero dezagun baten bat egotea, guztiontzat pozgarria litzateke».

Akabuan, 2016-17 denboraldirako klubaren argazki ofiziala atera zuten kantxan bertan; gerora, Fadurako garagardotegian eguneko anekdotak eta liga eta txapelketa ezberdinetarako asmoak partekatu zituzten denen artean, mokaduren baten bueltan. Ekitaldian, hurrengo gonbidatu hauek parte hartu zuten: Germán Monge Bizkaiko Saskibaloit Federazioaren presidentek, Álvaro González Getxoko Udaleko Kirol zinegotziak eta Txutxo Sanz Bilbao Basket Fundazioaren ordezkariak, besteak beste. ◀

Fadurako tenislariak, igotzear



Faduraren talde nagusia harrobiko 17 jokalarik osatzen dute. © FTK

Fadura Tennis Klubak Estatu espainiarreko Lehenengo Mailan jokatzeko aukera izan dezake, azaroaren hasieran. Pasa diren urriaren 15ean eta 16an, Bigarren Mailako Espainiako tenis-txapel-dun titulua lortu zuen taldekako modalitatean, Faduran, Getxo Kirolak erakundeak utzitako instalazioetan. Finalerdietan, Zaragozari nagusitu zitzaion, 5-0; finalean, Alacanteko Atlético Montemar taldearen aurka, antzeko emaitza izan zuen: 4-1. Horri esker, daborduko, kluba Estatuko lehenengo hamabi talderik onenen artean dago. Datozen azaroaren 5ean eta 6an, ranking horretan gora egin eta lehenengo mailara jauzia emateko aukera izango

dute algortarrek. Data horietan, igoe-kanporaketa jokatu dute Bigarren Mailako beste hiru klubuen aurka. Honako helburuak izango ditu Fadurak: jokoan diren Lehenengo Mailarako txartel bietako bat lortu eta maila hori osatzen duten zortzi taldeetako bat izatea. Lehenengo partida Zaragozan jokatu dute, Móstolesen aurka. Txemi Villanueva Fadura tenis-eskola-ko zuzendariaren arabera, partida hori lurrezko pistan jokatzeko abantaila emango die algortarrei. Oztopo hori gaintzekotan, Zaragozako Casablanca taldea gaintu behar izango luke. Hala, orain dela hiru urte «gutxigatik» galdutako aukera berreskuratuko luke Fadura Tennis Klubak. ◀

Elkar Kirolak babesteari utzi dio Camposek

Umeen Bizikleta Festak amaiera eman zion Elkar Kirolak txirringularitza-elkartearen denboraldiari, pasa den urriaren 16an. Berango, Erandio eta Leioako udalek sustatutako elkarteak balantze ona egin du jaialdiaz. Euria izan arren, 4.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten Erandiotik Berangora antolatutako ibilbidean eta geroko jardueretan. Baina egun horrek atsekaberako bidea ere zabaldu zuen: lau urteko elkarlan arrakastatsua ostean, Campos kontserba-enpresaren eta Elkar Kirolak bideak banandu egin ziren. Ja-

vier García Elkar Kirolak manager nagusiak azaldu duenez, «Conservas Camposentzat eta Salica enpresarentzat esker-hitzak besterik ez ditugu, eskaini diguten elkarlanagatik». Era berean, Camposek Elkar Kirolak 23 urtez azpiko gizonezkoen taldeari eskainitako «lau urteok zoragarritzat» jo ditu García. Lau urte horietan Baqué-Campos izenaren pean lehiatu dira Elkar Kirolakeko txirringulariak.

Halere, taldeak datorren urtean ere segituko du, Baqué kafe-konpainiak eta Saroni bizikleta-enpresek babestuta, 39. denboraldia egiteko. ◀

Athletic Herriz Herri ekimenak Leioa poztu du

Pasa den domekan, Athletic Herriz Herri ekimena ospatu zen Leioako Boulevarden, goizean. Hiru eta zortzi urte bitarteko dozenaka neska-mutilek gozatu ahal izan zuten jolasgune batez, pertsona-futbolin batez, txikigune batez, aurpegiak margotzeaz, iturri-eta irudi-tailerrez eta *photocall*az. Era berean, euren zuri-gorritasuna agertzeko hainbat aukera izan zituzten: trebetasun jokoan baloi adimendua mugiaraziz, tartean. Ekitaldian izan ziren Ricardo Mendiguren Athletic Fundazioaren zuzendaria eta Mari Carmen Urbietta alkatea, besteak beste. ◀

Basakick jaialdia egingo dute urriaren 29an

Datorren zapatuan, hilak 29, Urdu-lizko Iparralde kiroldegian antolatuko dute Kick Boxing, Kick Light eta Light Contact borroka-modalitateen doako jaialdia. Basakick klubak jakinarazi duenez, saioa 18:00etan hasiko da. Ordu horretan Kick Light eta Light Contact sariketak egingo dituzte. Parte-hartzaileak 8 eta 40 urte bitartekoak izango dira, emakumezkoak eta gizonezkoak, eta hainbat mailatan lehiatuko dira. Sariketak amaitu ondoren, 20:30ak aldera, Kick Boxingeko borroka-erakustaldia izango da. ◀

info+: Basakick.net

FUTBOL 5 TXAPELKETA

by **MOTION**

SARIAK - PREMIOS

ALGORTAKO BATZOKIAN

660256891

Azaroak 4, 5, 6

Helduak (18+) 150€

Txikiak (14-17) 100€

5€

pertsona bakoitzeko

GIZONEZKO MODA
ALGORTAKO ETORBIDEA, 59

bizi ezazu

MALAKATE-TABERNA

Urtze Kostako Informazioa

Leioa Waterpolo, zazpigarrenez



Leioaztarrek Santa Eulaliaren kontra jokatu dute Sakonetan, zapatuan. © LEIOA WATERPOLO

Denboraldi berriaren estreinaldia jokatu zuen pasa den aste-akabuan, Iruñean, Leioa Waterpolok. Azken minutuan zoritxarreko jokaldi bik eman zioten derbiaren garaipena Nafarroa Garaiko 98'02 taldeari, 13-12 markagailu estu batez. Hala ere, emakumeen waterpolo-taldeak badauka zer ospatu.

Leioaztarrek zazpigarren aldiz eta seigarren urtez jarraian lehiatzen dabilza Estatu espainiarreko Lehenengo Mailan. Ohi den legez, Jon Lopezek entrenatzen duen «izurde urdin-berdeen» taldea oso gaztea da: zortzi jokalarik 20 urte baino gutxiago baituzte. Gainera, hasieratik egin duten moduan, harrobiko apustuari segida eman diote, eta iazko multzoa mantendu egin dute. Salbuespen bakarra Aida Bartolomé da, pasa den udan Bordeleko USB taldean jokatzeko hasi baitzen. Leioa Waterpoloren golegile nagusia izan zen iaz Bartolomé eta bera ordezkatzeko erronka bilakatu da

taldearentzat. Dena den, betiko filosofiari eutsi diote, kanpoko fitxaketak egin barik. Hala, geratu den hutsunea Sakonetako harrobi umel eta aberastetik tiraka bete dute. Izan ere, leioaztarrek kontziente dira emakumezkoen waterpoloko eliteagaz lehiatzen direla, «etxeko jendeak eta etxeko jendearentzat egindako» proiektu batez, eta harro daude horretaz. Horregatik, Kataluniako Sant Feliu taldeagaz batera faboritua den 98'02 nafarraren aurka galtzeak ez ditu leioaztarrek etsiaraziko. Are gutxiago, arerio horiek biak jokalarri berriakaz sendotu direnean, leioaztarrek partidak kontrolatzeko kapaz direla ikusi dutenean, eta zaleak prest dituztenean eurakaz bidaiatzeko eta edozein igerilekutan animatzeko. Jon López teknikoaren ustez «taldea lotsagabeki gaztea da, horregatik uste dugu onena dela ambizioa eta zuhertasuna bateratzea. Aurreko denboraldiaren maila oso altua da eta horrek ez gaitu itsutu behar». ◀

Getxon ere Askotariko Kirola programa, abian

Getxo udalerriko neska-mutilek askotariko kirolaren denboraldi berriari hasiera eman zioten pasa den zapatuan, Itzubaltzeta/Romoko Gobela kiroldegian; bertan, areto-futboleko partida bat jokatu zuten. Getxo Kirolak udal-erakundeak udalerriko hainbat klubegaz eta ikastetxegaz elkarlanean antolatutako eskola-kiroleko programa da Askotariko Kirola. Iaz, 1.000 ikaslek baino gehiagok parte hartu zuten. Denboraldi honetan, 21 kirol-modalitate ezagutu ahal izango dituzte Lehen Hezkuntzako neska-mutilek. Aurtengo berrikuntza da paddle-surf egiteko aukera

eskainiko dutela lehenengo aldiz. Horrez gainera, honako kirol eta ariketa fisiko hauek ere izango dira aukeran: bela, arrauna, dantza modernoa, patinajea, arku-tiroa, piraguismoa, waterpolo eta surfa, besteak beste. Askotariko kirolean parte hartu gura dutenek izena eman dezakete guraso elkarten bitartez, edo ikastetxe bakoitzean kirol-jarduerak koordinatzen dituzten pertsonakaz harremanetan ipiniz. Osera, ikasketak herritik kanpo egiten dituzten ikasleek Getxo Kirolakera jo dezakete izena emateko. ◀

izen-ematea: ilacruz@getxo.eus
Getxo.eus/eu/getxo-kirolak

Askotariko Kirola programa, domekan, Leioan

Leoako Eskubaloi Eskolak jakinarazi duenez, datorren urriaren 30ean, domeka, abiatuko dute askotariko kirol-eskola, Sakoneta kiroldegian. Goizeko 09:30etik aurrera, 4 eta 11 urte bitarteko neska-mutilek askotariko kirol-jardueraz gozatu ahal izango dute: motrizitatea, koordinazioa, gorputzaren kontrola eta oreka landuko dituzte, besteak beste. Domekara egongo da da eskola zabalik. Jarduerak doakoak dira eta bertatik pasatuz izena eman daiteke; era berean, posta elektronikoz eta telefonoz ere bai. ◀

izen-ematea: balonmanoleioa@gmail.com
/ 688 698 568

Hiru baselizen herri-ibilbidea, Leioan, domekan

Pasa den apirilean abiatutako 40. urteurreneko ospakizunakaz aurrera segitzen du Leioako Euskal Kirol Zaleak elkarteak. Hala, domeka honetan, hilak 30, Leioako hiru ermiten ibilbideari ekingo diote kirolzaleek, laugarren urtez. Izen-ematea egun berean egin ahal izango da Leioako Boulevarden, 09:00etatik aurrera; herri-ekimena 09:30ean abiatu arte. 15 kilometroko ibilbidea osatu eta Ondiz, Santimami eta San Bartolometik igarotzen ondoren, indarrak berreskuratzeko aukera izango dute 12:30ean parte-hartzaileek, txitxi-burruntzia janez. Gainera, opariak egongo dira. ◀

Punta Galea Challenge QS proba, itxarote-aldia

Galeako olatu handien txapelketaren itxarote-aldia hasi da daborduko, datorren otsailaren 28ra arte. Surfzaleak adi daude kostaldera sar daitezkeen ekaitzei, baten batek Punta Galea Challenge egiteko beharrezkoak diren olatu erraldoiak ekarriko ete dituen. Aurtengoa hamargarren edizioa izango da, iaz urteu-

ren biribila izan behar zena olatu egoiki barik pasatu eta bertan behera utzi ostean. Hori dela-eta, pasa den maiatzean, WSL Munduko Surf Ligak iragarri zuen Punta Galea Challenge ez zela izango aurtengo BWT Olatu Handien Tourraren topalekuetako bat, QS Sailkapen Serieak bigarren mailako liga berriko proba bat baino. ◀

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41
Algorta

GAVRKO
1967

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



Stock Euskadi

azokarako 4 sarrera bikoitz dauzkagu, gura dituzu?

Azaroaren 4tik 6ra bitartean Stock Euskadi azokaren XI. ekitaldia egingo da BECen, Bizkaiko outletik handiena!

Azaroaren 2a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion agurrak 5€

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
944 911 337



ITZIAR MUNGIA
Uribekostarron partez

Zorionak, Itzi Poni! Ardoa bezalakoa zara, neska! Noiz lotuko gara zurito batzuekatz ospatzeko? Besarkada potolo bat denon partez, muuuua!



ELIAN BILBO
Kudrillaren partez

Itsasadarraren beheko aldean ere maite zaituen lagun-talde bat daukazula ahaztu ez dezagun... Zure urtebetetzea ospa dezagun!



LALA LERIN
Zuriñeren partez

Zu Lerinen eta ni Algortan, ez da erraza izaten elkar besarkatzea. Berba hauen bitartez, mila muxu oparitu gura dizkizut zure urtebetetzean.

Sudokua

				7				
9	8					7		6
	5			8				
			6			2		
2				1	8	4	5	
	4			9		1	3	
6	2	1	4					
		4						
5				7	1			

Gogoan hartu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

4	9	1	7	2	3	8	6	5
2	8	5	9	1	6	4	7	3
9	5	3	7	8	5	4	1	2
3	6	1	3	9	2	7	4	8
5	4	8	1	3	7	6	9	2
7	2	9	4	6	8	5	3	1
1	3	4	8	6	9	2	5	7
6	9	7	5	4	1	3	8	6
8	6	2	3	7	5	9	4	1

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Opor luzeak behar dituzu! Pertsona zara eta ez makina bat. Bestalde, besteen beharrei ere adiago egon beharko zenuke: entzuteak ez dakar kalterik.




Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Senideren batez eztatidaren bat izango duzunez, tentsio handia jasango duzu datozen egunotan. Egin ahalegina eta lasaitu aisialdian.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Lan-kontuetan maitasunezkoetan baino interes handiagoa duzula ematen du; besteek horrela ikusten dute, behintzat.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Beti besteen eskakizunak asetzen zabilta. Noiz hartuko duzu denbora apur bat zuretzat? Hasi egiten aspalditik desiratzen dituzun kontuak.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Oraindino zabilta kontu berari bueltaka... hasi zure bizitzako atal berri bat behingoz. Ez bihurtu arazo edozein huskeria.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Jaramon egin jaten duzunari. Horrez gainera, nagiak atera eta murgil zaitetz naturan, dirudiena baino errazagoa egingo zaizu-eta.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Urduri eta narritagarri sentituko zara, eta lo egitea kostatuko zaizu. Oso umore txarrez zabilta, zergatik izango ete da?



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Lagunekiko harremana jagon behar izango zenuke. Azken finean, benetako adiskideek beti lagundu zaituzte, une onetan eta egoera txarretan ere bai.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Indar handiz hasi duzu ikasturte berria. Oso momentu ona da zure bizitza begi berriz ikusteko eta zeure buruari erronka berriak ipintzeko.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Lagun bati huts egingo diozu eta berehala damutuko zara. Pertsona hori mindu ondoren, jokabideaz aldatzeko komenentziaz ohartuko zara.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Arriskatzeko unea iritsi zaizu. Berria edo ezaguna denari beldur izan diozu beti, ez duzu pausorik eman birritan pentsatu barik. Aldatu!



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Bada zure gorputza zaintzen hasteko garaia. Behin baino gehiagotan ahalegindu zara, baina oraingoak behin betikoa izan beharko luke.



Sopela, euskaltzale berrien begira



aitxu!
sopelan euskeraz bizi

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Sopelako Aitxu! euskara-taldeak azkenengo kantaldia egin zuen pasa den zapatuan. Hamar urteko ibilbide oparoa bete ostean, «agur» esan zuen. «Euskaldun temati berriei» eman gura dizkie lekukoa eta ondare osoa.

Daborduko Aitxu! euskara-taldea historia da. Sopelan euskal kultura eta euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, 2006an jaio eta batzen hasi ziren eta 2007ko ekainaren 1ean plazara jauzia egin zuen, «gure herrian euskararen erabilerrari bultzada indartsu bat emateko». Erakundea aurkeztu zuten bezain alai eta irribarretsu agurtu zuten pasa den aste-akabuan, egindakoaz harro.

Mikel Begoñak akorduan dauzka hasierako garai haiek. Berak dioenez, euskararen erabilera eskasatik «kezka genuen kuadrilla bat batu ginen, batzuk ikastolako gurasoak». Kontua «txarto» zihoala ikusten zuten eta horregatik «erabaki genuen zeozer egin behar genuela; hortik aurrera taldetxo bat batzen hasi ginen eta elkartea sortu genuen. Hasiera batean, kalean suspertze-lana egitea izan zen norabidea, batez ere; erromeriakaz ere hasi ginen».

Hasierako urteetako «ilusioa» nabarmendu du Karmen Galdeanok. Elkartea abian ipini zuten ikusten zutela «teorian, Sopela herri euskalduna zela, baina, gero, benetan, kalean ez zela bermatzen euskara; ez ziren gune euskaldunak sortzen eta, agian, umeen kontuetan gelditzen zela dena». Elkartea jendaurrean aurkeztu eta hilabete batzuetara, sentsazio

horiek egiaztatu zituzten. 2007ko abenduaren 27an, Aitxu!-k orduko inkesta soziolinguistikoek eskualdeaz ematen zituzten datu batzuk iragarri zituen: «Uribe Kostako biztanleen %9,3k erabiltzen du euskara normalean; baina are kezkarriagoa da erabi-

Ate bat itxi dugun arren, beste bat zabaltzen gabilta, aukera bat dagoelako orain jende berriak euskararen alde lan egin dezan

lera gazteen artean: gazteen %2,8k baino ez. Umeek euskara gehiago (%15) badarabilte ere, laster, nerabetsunera heltzeagaz batera, aurreko datu horietara jausten da portzentaia. Eta horrek burura dakigun ondoko galdera: euskara bultzatzeko umeen artean egiten diren ekitaldiak, egokiak izan arren, badute jarraipenik ondorengo urteetan?».

Testuinguru hartan, ordurako erromeriak eta berbatxangoak antolatzen zituen elkarreak. Baina, Galdeanok kontatu duenez, «ikusten genuen ez ginela

iristen herri euskaldun benetako bat sortzera». Ildo berean jardun da Begoña: «ikusi genuen pauso sako-nago bat eman behar genuela eta, orduan, kanpaina luzeago eta pentsatuago batzuk garatzen hasi ginen, bai euskara teknikariagaz eta herrian dauden elkar-te eta erakunde ezberdinakaz elkarlanean». Hortik etorri ziren kantaldiak eta euskararen aldeko sentsibilizazio-kanpainak. Aitxu!-k «esparru ezberdinetan herrian lan egiten duten taldeakaz harremanetan ipini eta modu sinboliko batez kantaldian abesti bat kantatzeko eskatu» zien. 2008. eta 2013. urteen artean sei kantaldi eta hamar erromeria antolatu zituen euskara-taldeak. Orduan, «ikusi genuen benetan lan handia dagoela egiteke; oraindino ere ikusten dugu» dio Galdeanok: «diru asko inbertitzen da euskararen alde baina, gero benetan ez da fruiturik ikusten. Umeentzako pailazo-ikuskizunetara eta jolasetara mugatzen ginen askotan; baina, benetan, ez ziren gauza serioak egiten. Orduan, herriko dendariakaz eta tabernariakaz hasi ginen gaia jorratzen».

Herriko dendetan eragiten

Hortaz, euskara erabiltzeko eremu berriak lantzen jardun zuen euskara-elkarreak. Berbarako, udalerriko merkataria-kaz eta ostalariakaz erabilera areagotzeko planak martxan ipini zituzten 2010etik aurrera; zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna zuten dendak identifikatuz eta ikurrak banatuz. Horregaz batera, doako euskarazko ikastaroak antolatu zituzten dendarientzat. Galdeanoren iritziz, «oso esperientzia ona» izan zen hura. Begoña ere iritzi berekoa da: «denda batzuetan ikusten da apurtu egin dela



© AITXU!

lehen zegoen beldurra, ez zekitelako nor zen euskalduna». Ikastaroak ere hainbat egin eta bultzatu dituzte: eskalada edo surf egiten zein txalaparta edo panderoa jotzen ikasteko, berbarako. Euskara-taldeak ateak itxi arren, ikastaro horiek ez daude arriskuan. Galdeanok baieztatu duenez, «horiek guztiek aurrera jarraituko dute. Gu abiatu ginen beraiekaz, baina, gaur egun, bakarrik jarraituko dute: gaur da eguna oraindino Peñatxurin, adibidez, ikastaroek jarraitzen dutela. Gure helburua hori zen: ikastaroak euskaraz egitea, gaur egun, egiten jarraitzen dute udan. Txalaparta, panderoa... Meñakoz kultur elkarreak ere bere gain hartu ditu beste ikastaro batzuk... Esango nuke izpiritua egon badagoela, eta zabaldu dugula, eta hor gelditzen da behintzat».

Kirolean, euskaraz

Hurrengo urratsa zerbitzu publikoetan ere euskara bermatzeko ahalegina egitea izan zen: kiroldegiko jarduerak euskaraz ere izan zitezten elkarlanean jardun zuen euskara-taldeak Mankomunitateagaz, Udalgaz eta Serviociogaz, 2011n, besteak beste. Oroitzapen gazi-goza dauka Galdeanok esperientzia hartaz: «beti topatzen ginen burokrasia edo Administrazioak ipintzen dituen trabakaz, begiraleei arazoak sortzen genizkielako; jagole asko erdaldunak zirelako. Ikastaroak sortu genituen eta orduan euskaltegiagaz hasi ziren arazoak... Euskara teknikariak hainbat kontu antolatzen lanean hasi eta handik gutxira teknikariak aldatzen zituzten, berriak etortzen ziren, baina jarraikotasuna falta zen gauzak ondo egiteko. Gainera, beti ibili behar ginen zi-

negotzien atzetik, teknikarien atzetik... oso neketsua zen, oso fruitu gutxi ateratzeko trukean».

Etorkizuna

Azken urteotan, atzerantz egin du Aitxu!-k; alde bate-tik, sei edo zazpi lagun baino ez dira batzen eta, beste aldetik, kideek denbora gutxi daukate. Galdeanoren ustez, «gauza puntualak egiteko ez genuke inolako arazorik izango», baina zalantza du urtean behin erromeria bat edo bi egiteko segitzea mereziko lukeen: «horrek ez du lana ematen; baina, benetan, hori da gure helburua?». Erantzuna zuzena da: «benetako lana egiteko, beste tresna eta indar batzuk beharrez-

Beti topatzen ginen burokrasia edo Administrazioak ipintzen dituen trabakaz, begiraleei arazoak sortzen genizkielako

koak dira». Gainera, Begoñak azaldu duenez, «azken urte biko bilakaeran, apurka-apurka, taldeko antolaketa jaisten joan da eta argi ikusten genuen amaiera heltzeaz zegoela. Orduan, pentsatu genuen amaiera on bat ematea». Gainera, «nahiz eta ate bat itxi dugun, beste ate bat zabaltzen gabilta, aukera bat dagoelako orain, jende berriak aurrerantzean euskararen alde lan egin dezan Sopelan; egestura bat eginda dago, eta hori ere abiapuntu bat izan daiteke». Izan ere, taldeak iragarri duenez, «ez dugu gure hizkuntza gel-

dirik ikusi gura. Hori dela-eta, lekukoa pasatu gura genuke, beste batzuek beste 10 urteko txanda bete dezaten». Euren ustez «indar berriak beharrezkoak dira, ideia berriak, gogo berriak, euskaldun temati berriak. Hori da gure agurraren desioa».

Galdeanoren arabera, «lana badago egiteko» eta «oso atsegina» da, «ilusioz» hartuz gero. Aitor-tu duenez, «gu jada zahartzen gabilta». Begoñaren iritziz, «ez da gazteen edo zaharren kontu bat, gogoa daukanarena baizik. Gutariko batzuk, ez dakit, prest gauden jarraitzeko edo atzetik laguntzeko». Laguntza-eskaintza hori berretsi du Karmen Galdeanok: «segitu gura duenak gure atea jo dezake, jakina, hasierako laguntza eskuratzeko. Dena idatzita utziko dugu: non lan egin, zer egin dugun, dirua ere eskura utziko diogu jarraitzen duenari. Esperantza badaukagu gazteek edo beste belaunaldi batek lekukoa hartuko duela».

Dena den, Begoñak uste du erreleboa ez dela zertan eman behar, orain arte erabilitako moldeen arabera. Bere ustez, «euskararen ardura ez da talde baten gainean geratu behar. Euskararen ardura Udalaren, herriko elkarte guztien eta denon arteko kontu bat da. Euskarak iraun behar badu, txipa aldatu behar dugu, goitik hasita, eta bitarteko praktikoa eta eraginkorrak ipini behar dira».

Aitxu!-ren hamar urteak laburbildu ditu Mikel Begoñak: «sartu ginen eta helburu batzuk lortu ditugu. Gero helburu horiek batzuetan ikusten da oso laburrak direla, baina orokorrean kontu batzuk lortu ditugu. Sopelan dagoen giroa oraindino nahiko erdalduna da, baina zeozer aurreratu dugu». ◀

Sukaldean

Onddoz eta foiez beteriko kazolatxoa, itsasoari begira



OSAGIAIK:

Onddoak, berakatza, foiea, arrautza, irina, ozpina, kipula erneak, tipulina eta okela-zukua.

PORTU ZAHARRA TABERNA

Portu Zaharra 35, Algorta (Getxo)
Tel.: 944 602 033
www.portuzaharra.com

Sasoia ez bada ere, oraindino ere eguzki izpiek gogotsu jotzen dute tarteka; hori dela-eta, epeltasun hori aprobetxatu guran, Algortako Portu Zaharrera hurreratu gara. Eskaileretan sugandilak legez, eguzkira begira gaudela, Portu Zaharra tabernara sartu eta sasoiko mokadutxo bat eskatu dugu, lehentxoago edandako Zuazo Gastón ardo ondua laguntzeko asmoz. Bada, udagoien betebetan murgilduta gaudenez, daborduko hasi dira inguruko mendietan onddoak neurria hartzen. Horrenbestez onddoz eta foiez beteriko kazolatxoa gomendatu digute, 11,5 euro ordainduta, lagun biren artean, itsasoari begira, basoetako zaporeaz gozatzeko egundoko aukera. Kazola hori zelan prestatzen den

jakin gura duzue? Adi bada! Lehenengo eta behin, onddoak txiki-txiki zatitu, eta berakatzagaz salteatu. Ostean, irina eta okela-zukua gehituko diogu, sutan dugun bitartean. Bestalde, foie zati bi hartu eta alde bietatik txigortuko ditugu plantxan. Onddoak ondo salteatu ondoren, zukugaz eta irinagaz saltsa moduko bat lortuko dugu; horren ganean ipiniko ditugu foie zatiak. Hori egin eta gero, kazola bat hartu, ura eta ozpina bota eta arrautza galdarraztatuko dugu. Arrautza denaren ganean ipini eta kazolatxo batean zerbitzatu dugu. Amaitzeko, emaitzari kolore apur bat emateko, tipulina eta kipula erneak botako ditugu gainetik. Hor duzue udagoienaz gozatzeko mokadu itzela prest; goza egizue! ◀

faceguk



Errektore berriak zer erronka ditu?

EVA MAZÁS ARNOSO

FERROL (GALIZIA)



Nire lehenengo urtea da unibertsitatean eta une batean ere ez digute azaldu zelan funtzionatzen duen errektoretzak; hortaz, ez dakit zer egin dezakeen.

KARMELE BUENAVIDA IBARRA

BILBO



Ikasleez gehiago arduratu, autobusen maiztasuna areagotzeko ahalegina egin eta unibertsitatearen kontuen inguruko informazio gehiago helarazi beharko liguke.

NEREA GONZALEZ CALVO

BILBO



EHUK eskaintzen dituen aktibitateen inguruko informazio gehiago zabaldu beharko luke, karreran lagungarria izan daitezkeen datuak, eta abarrakaz.

OSCAR GARCIA FERNANDEZ

GASTEIZ



Ez dakit zeintzuk diren bere funtzioak, baina ikasleen protestak kontutan hartu beharko lituzke. Halaber, birplanteatu beharko luke poliziaren presentzia EHU.

SERGIO MARTINEZ VEGA

PLENTZIA



Oinarritzko arazoa da ikasleriak ez dakiela zein den errektorearen egitekoa; informazio gehiago eman beharko lukete, ez bakarrik e-mail bidez, hitzaldiak emanez-eta...

Dastaketa fitxa

ARDOA: Zuazo Gastón ondua.

UPELATEGIA: Zuazo Gastón.

MAHATSAK: %100 Tempranillo.

DASTAKETA: Kolore distiratsua, granate kolore sakonduna alboetan teila nabardurakaz. Askotariko aroma eta onduaren banilla eta haritza ukituakaz. Konplexua eta elegantea ahoan, orekatua eta zapore-ondokoa sakona eta iraunkorra.

Gomendagarria okel gorri, ehizaki, gisatu eta gaztakaz dastatzeko.

Zerbitzatu 16º eta 18º artean.

%13,5 alk. bol.



Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua